

ELKARRIZKETA: Manuel Galiana aktorea • ERREPORTAJEA: Aratosteei agur • FIRIN FARAN: Liburutegiaren estatistika txostena • KIROLEZ KIROL: Real-Eibar derbia Donostian • DANON AHOTAN: Nagusiendako dantzaldia San Balentin egunean • GAZTEKITTO: Eibarko gazteak ikus-entzunezkoen egile • AUZORIK AUZO: Santa Ageda erromeria Aginagan

626 zkia. EIBARKO ASTEKARIA 2008-II-8



KOKEINen mundu margotu berria

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean



EIBAR



Eibarko inguru onenean bizi nahi duzu?

Gela bateko apartamentuak 180.000 €-tik

Gela biko etxebizitzak 260.000 €-tik

Ordainketarako erosotasuna eta zure etxebizitza saltzeko konponbidearekin

INFORMAZIOA
ETA SALMENTA

Egogain kalea
(Autobus geltokiaren
ondoan)

943 20 21 99


LANDU
Promoioak



Euskara Elkarteak

ARGITARRATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, Silbia Hernandez

eta Ekhi Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Kokein

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ihintza Fernandez

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN:

1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Sail honen helburua ez da euskera irakastea, ezta hiztegi bat egitea ere. Gure gurasoek eta haien gurasoek erabiltzen zuten euskera gogora ekartzea eta berreskuratzea da asmoa. Gaur egunean euskerak esparru guztiak hartu ditu eta gaur egun baino euskaldun gehiago ez da inoiz egon; baina, hala ere, oraindik euskera ez da erabateko komunikazio-tresna: hainbat gauza esatea kostatu egiten zaigu, ez dugu gaztearen bezalako erraztasunik eta trebetasunik. Sail honetan euskeraren alde adierazkorra landu nahi dugu, euskerak berez daukan gazta eta berakatzatza berreskuratu. Horretarako aurreko belaunaldietara jo dugu, gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera jatorraren berri jasotzeko.

DIRUA, DIABRUAREN KOROTZA.- Diruaren alderdi txarra azpimarratzen duen definizioa. Gazte-razko *'el vil metal'*.

DIRUDIXAN LETZ.- Dirudienez, itxura denez. *"Dirudixan letz, aurtengo gari uzta ez da izango ugarixa".*

DOLORE.- Mina, baina ez fisikoa. *"Hagiñetan min izaten dogu; bihotzian doloria".*

IRAKURLEA PROTAGONISTA **eskutitzak**

EZKER ABERTZALE ANITZAREN ERRONKAK

Ezker abertzalea sortu zenetik, ekarpen handiak eratu ditu Euskal Herriari, eta agian hauek izan daitezke garrantzitsuenak:

1. EAJ eta orduko ANVren iritzien kontra, Txillardegik hasieran eta Arantzazuko taldeak geroago, Irlandaren eredu baztertu eta, hasiera hasieratik, lehentasuna eman zioten euskararen berreskuratze-ari. Zailtasun guztien gainetik, esan dezakegu, Gipuzkoan bederen, normalizazio prozesua irauli ezinezkoa dela.
2. Askapen nazional eta soziala bat egitea izan da beste ekarpen garrantzitsua, kontuan izanda borroka ideologikoa zein gogorra izan zen.
3. Lurraldetasuna. Zazpi herrialdeen kontzeptua landu du. Objektu izatetik, subjeto izatera pasatuz.
4. Autodeterminazio eskubidearen defentsa irmoa egin du, kontzeptu hau gizarte osoan zabalduz. Gaur, ostera, bidegurutze batean aurkitzen gara. Gero eta gehiago gara estrategia politiko-militarraren ibilbidea bukatutzat ematen dugunok eta **kalte** gero eta larriagoa ekartzen diela Ezker Abertzaleari berari eta beste guztiei uste dugunok. Posiblea eta beharrezkoa

delako, zain gaude ETAK bere errauts politikoetatik proiektu berri bat noiz bultzatuko, abangoardiarik gabeko, zibil eta zabal izango dena eta, berriz ere, jende askorengan ilusioa piztuko duena.

Geure errealitatea kontuan hartu eta dominatzaileek sustatzen duten akulturazio ildoari kontra egin behar diogulakoan gaude. Nabarralde taldearen lana hortik doa: gure kultura, nortasuna eta memoria berreskuratzearen bidetik.

Independentsia lortzea posible izango da Ezker Abertzale anitza indartsu ateratzen bada, eta EAJ bere posizioetatik mugitu arazteko gai den neurrian.

XXI. go gizaldirako, eguneroko bizitzan ezkerretik nola eragin izan beharko luke Ezker Abertzale berri horren beste zereginetako bat. Ezkerreko balore historikoak eutsiz eta berriak uztartuz: **ekosozialismoa**, alegia.

Zeregin asko dago eta, apaltasunez eta esku zabal-tasunez, guztion artean Euskal Herriko Errepublika federal, ekosozialista, independente eta euskalduna lortuko dugu.

Nestor Alberdi eta M^a Asum Gartzia (Elbarko Aralar)

DENAK EZ DUELAKO BALIO


Merkatu Plaza bota dutenean, zera pentsatu dut: komertzioari dagokionez Eibar bailaran erakargarria izatea lortu nahi bada, denak ez duela balio.

Orain dela gutxi, uste dut joan den maiatzean izan zela, eskandalizatuta gelditu nintzen, Udaleko Plenoan Merkatu Plazaren eta Musika Eskolaren orubea Eibar Boulevard enpresaren esku lagatzeko Iñaki Arriolaren inisiatiba onartu zenean. Ondare publiko hori "inoren-tzea" erabaki zen- hiztegiaren arabera zerbaiten jabetza beste bati pasatzea esan nahi du- beste hiri batzuetan hain ezagunak egin diren merkatal gune handi bat egiteko, eta hori guztia Eibar "komertziala" lortzeko asmoz. Oposizioaren baten bat, uste dut Ezker Batuko ordezkaria izan zela eta bat nator berarekin, kontra agertu zen esanez Udala dela udal ondarearen gestorea, baina ez jabea. Eta udal ondarea, gure herrian gero eta txikiagoa dena, herritar guztiena dela. Jabetza publikoa desagertuko da merkatal gune berriaren gestioan, eta hori guztia Eibar Boulevard enpresak Zara, Cortefiel eta abarren komertzio globalizatzailea

ekartzeko Eibarrera, eta hori guztia bertoko denda txiki-erako? Ez dut uste inondik inora horrela izango denik; hori baino gehiago diot: jaso duten orubea haunditzeko, penaz ikusi dut nola bota duten nahiko berria den Musika Eskola ere. Zenbat urtetan egon da bertan, 20?, 30? Inbertsioa errentagarri egiteko denborarik ez. Eta gainera, horretarako baldintza urriagoak dituen beste leku batean prestatu behar izan dituzte gelak. Badirudi dirua soberan dugula, atzo berritutakoa zein erraz botatzen dugun ikusita. Gazteentzat, elkar-teentzat eta bestelako jarduerentzako lokalak egiteko eraikuntza publikoen ondarea txikia da gure herrian, eta triste jartzen naiz, hain adierazgarriak diren bi eraikuntza horiek, gure oroimenetik desagertaraziz, eskabadorak nola botatzen dituen ikustean, eta geratzen den orubea jabetza publiko izatetik zorientasun komertziala ekarriko digun enpresaren diru-kutxara nola joaten den ikustean.

Denak ez du balio.


Julen Rutz



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETTA)

kutxa

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria



Zaintzak kostua du!

Menpekotasuna bere kasa moldatzen ez den lagun baten egoera da. Menpekotasun egoera eta maila ezberdinak daude (umeak edo pertsona gaixoak zein minusbala edo ezintasun bat dutenak). **Zaintzak** lagun batek beste baten zain egin behar dituen zereginak dira: oinarrizko premiak asetu (elikatu, jantzi, garbitu...) eta afektibitate, lege eta jendarte eremuan lagundu.

Pertsona guztiak bizitzako unerik batean beste laguntza behar dugu: haurtzaroan, zahartzaroan, gaixotasun aldietan... Menpekotasun egoeretan, **emakumeak** dira familiako gainerako kideak zaintzeko lanik gehien egiten duten pertsonak, ia laguntzarik gabe eta euren berezko betebeharra balitz bezala. Emakumeontzat besteetaz kargu egitea ardurua "natural" bat dela sinisten duen gizarte baten bizitza. Emakume askok uko egin behar izaten diete lanari, aisialdiari eta euren osasunari. Hortaz, zaintza lana banatzen ez den artean ez da berdintasunik egongo!!

Mendeko pertsonak zaintzen dituztenen %84a emakumezkoa da. **Lan** horrek dedikazio osoa eskatzen du, eta erantzunkizun eta desgaste handia dakartza. Halere, ez zaio garrantzirik ematen eta ez da ordaintzen. Kasu askotan, zainketek lan baldintza eta egoera prekarioak sortzen dituzte. Zaintzaileen **lan-baldintzak** arautzen, egonkortzen eta hobetzen dituzten ekimenak abiatu behar dira, zaintzailea zaintzen duen pertsonaren senide izan edo ez.

Emakumeen Mahaiak martxoaren 8ko programaren ardatza "Emakumeak eta Zaintzak" izango du. Hainbat ekintza gaiarekin lotuta antolatuko dira: antzerkia, ikastaroak, kontzentrazioa, hitzaldiak...

M^a Jose Lasa
(EMAKUMEAREN MAHAIKO IDAZKARIA)

500.000 euro Armagintza Museoarentzat

Jesus Maria Alkain Kutxa Gartzarte Ekintzako zuzendaria eta Iñaki Arriola alkateak Armagintza Museoak bere eraikitze eta zabaltze lanetarako 500.000 euroko dirulaguntza jasotzeko hitzarmena sinatu zuten martitzenean. 2007ko urtarrilean zabaldu zen Portaleko 5. pisuan kokatuta dagoen museoaren lehen fasea, eta bigarren faseak urte honen amaiera irekiko ditu ateak.

Museoak herrian eta gizartearen duen garrantzia azpimarratzeko, Jesus Maria Alkainek "herri batek ez badu atzera begiratzen ez du etorkizunik izango" adierazi zuen. Era berean, Iñaki Arriolaren esanetan, "museoaren zabalkundearekin eibartarrek euren herria-



Alkain eta Arriola hitzarmena sinatzen martitzeneko ekitaldian.

ren historia nolakoa izan den jakingo dute". Nerea Alustiza proiektuaren ardura duen zinegotziaren berbetan, berriz, "museoa ikusten dena baino gehiago da, hori %5 soilik delako. Diruaz gain, kolaborazio handia behar izan dugu eta oz-

topo ugari saihestu behar izan ditugu, horma asko bota". Bestalde, museoaren izaera unibertuala azpimarratu zuen. Alkateak, bestetik, Kutxaren dirulaguntzak xede jakin bat ez duela adierazi zuen, "ekarpen orokor bat da".

Matrallako Irratixaren programazio berria

Negu eta udaberriko programazioa aurkeztu du Matrallako Irratixak. Egutero, asteko zazpi egunetan entzun daiteke Matrallako Irratixa FM-ko 102.8an. Saioen artean 'Aldaparetako bizitza' saioa azpimarratu nahi dute irratikok arduradunak: "Saio horretan musika eta aktualitatea jorratzeaz gain, elkarrizketak egingo ditugu idatzi edo musika egiten duen



herriko jendearekin. Saioa martitzen gauean emititzen da, 21.00etan dugu eta ordu horretan entzun ezin dutenentzat eguaztenetan errepikatuta egiten dugu 14.00etatik aurrera".

Bestalde, aurten garrantzi berezia eman nahi izan diete albistegiari: "Astelehenetik barixakura 'Info7' irratikok albiste buletin laburrak emititzen ari gara, goizetan orduero 08.00etatik aurrera, eguerdiko 12.00etan izan ezik. Eguerdiko 13.00etan ordu erdiko albistegia dator. Arratsaldeetan, berriz, 17.00etatik aurrera orduero 5 minutuko buletina emititzeaz gain, 20.00etan iluntzeko 30 minutuko albistegia emititzen dihardugu". Matrallako Irratixa-ren berri gehiago bere blogean (www.eibar.org/blogak/matrallako) jaso daiteke.

Nagusiendako dantzaldia Astelenan

San Balentin eguna primeran ospatzeko aukera izango dute nagusiek, eurentzat apropos antolatu duten dantzaldiari esker. Eguenean, otsailaren 14an, 18.00etan hasi eta 20.30ak arte Rushell orkestrak dantzatzeko moduko doinuak eskainiko ditu Astelena frontoan:

boleroak, balsak, pasodobleak, Mexikoko 'corridoak', tangoak, saltsa eta euskal musika entzungo dira, besteak beste. Sarrera doan izango da eta lagun bakoitzari edari bat doan emango diote. Dantzaldia Eibarko Udalak antolatu du, Biztutubilatuen koordinakundearen laguntzarekin.



LEIRE ITURBE

autuan

JOKALARI ANONIMOAK

Jokoarekin arazoak dituztenei laguntzeko taldea dago Elgoibarren. Ludopatiatik irtetzeko terapia taldeekin bat egin nahi duenak 699377520 telefono zenbakira deitu dezake eta han emango diete argibide gehiago.

POSTA BIDEZKO BOZKA

Martxoaren 9an egingo diren hauteskundeak dirrela-eta, EAJ alderdiak informazioa emateko bulegoa zabaldu du Julian Etxeberria kaleko 5. zenbakian. 10.00etatik 13.00etara eta 17.00etatik 19.00etara egongo da zabalik bulegoa eta posta bidez botoa eman nahi dutenei eman beharreko pausua zeintzuk diren argituko diete. 943120616

telefono zenbakira deitzeko aukera ere badago. Gainontzeko alderdi politikoek ere zerbitzu hori eskaintzen dihardute euren egoitzetan.

EGUZKI ENERGIA

Udalak eta EVE Energiaren Euskal Erakundearen arteko hitzarmenari esker, udal eraikinetan eguzki-plakak ipiniko dituzte, eguzki energia erabili eta energia aurrezteko. Honezgero 50 udalerritik gora egin du bat Energiaren Euskal Erakundearen proposamenarekin. Amurrioko udaletxeko teilatuan, adibidez, 38 eguzki-panel ipini zituzten EVEk egindako 28.000 euroko inbertsoari esker eta horiekin urtean 5.000 kilowattio sortzen dituzte, 10 pertsonaren kontsumoaren parekoa.



Burua argi, gorputza osasuntsu

Soin hezkuntzaren aldeko taldea da Sohata eta, astelehenerako, otsailaren 11rako, greba deialdia egin du soin hezkuntzako irakasleei zuzendua.

Eusko Jauraritzak aurkeztu duen Curriculum berriari aukera ematen du soin hezkuntzako gutxieneko ordutegia %40 murrizteko; eta, ikastetxe bakoitzak dauka gutxieneko hori baino gehiago eskaintzeko 'aukera'. Baina gaur egun aukerak ongi aztertu beharrekoak dira. Hitzak ez baitira sekula neutroak.

Kirola eskolaz kanpo ere egin daitekeela dioenik egongo da eta, egia da. Baina badira bi ideia, gutxienez, kontutan izatekoak. Bata kirola eta soin hezkuntza ez dirrela gauza bera. Soin Hezkuntzak kirolak baino esparru zabalagoa hartzen du bere baitan eta heziketa du helburu. Bestea, soin ariketa oro eskolatik kanpo eramateko badugu, esparru pribatu edo erdi pribatura eramango dugula seguruenik; eta horrek ikasle askoren aukerak ez dituela bermatuko uste duen horietakoa naiz.

Gure gorputza zaintzen ikastea ere garrantzitsua da. Burua ondo janztea bezainbeste. Eta eskolak badu, gurasoekin batera, zer esanik alor horretan. %40 murrizteko aukera eman beharrean, nik %40 gehitzeko aukera hobestuko nuke.

Hala ere, Sohata taldekoen informazioa hemen eskainitakoa baino osoago izango da seguruenik. Beraz, hona hemen haien orrialderako lotura, informatu nahi duenarentzat: <http://www.blogak.com/sohat>. Bestalde, dekretuaren inguruko informazio zehatzagoa jasotzeko hemen hezkuntza saileko web orriarena: www.hezkuntza.net

Orain, norberak epai dezala.

Ane Sarasketa
(KAZETARIA)

Altzoako alargunek bazkaria egiten dute urtean behin.



ANNAIA JAIO

Alargunen egoeraren azterketa

Altzoa elkarteak herriko alargunen egoeraren inguruko azterketa egin berri du eta aurreko astean eman zuen horren berri prentsaurrekoan. Azterketa Aritze enpresako Oihana Medina eta Mireia Arginzonizek egin dute eta 2004an egindako ikerketa soziodemografikoa osatzera dator. Datuetatik haratago, Eibarren dauden 2.000 alargunen "argazki" modukoa aurkeztu nahi izan dute, herriko 230 an-

dren inguruko azterketan oinarrituta. Azterketa egiteko elkarriketak eta galdetegiak erabili dituzte, besteak beste. Eibarko populazio osoaren %8'4 alarguna da, gehienak andrazkoak (2.000 inguru, gizonak 382 dira). Hainbat arlo ikertu dituzte: osasunari begiratuta, alargunen erdiak baino gehiagok gaixotasunen bat duela azaldu du, gehienetan hezur arazoekin lotutakoak. Horrez gain, %5'8k depresioaren bat dute. %38k,

gainera, eguneroko gauzaren bat egiteko zailtasunak dituzte (eskilaretan gora-behera ibili, jantzi, bakarrik bazkaldu...).

Etxebizitza kontuetan arazorik ez dute, gehienak (%92) euren etxearen jabe dira-eta. Hala ere, igogailua ipintzeko edo etxean obrak egiteko diru-arazoak dituzte euretako askok. Aisialdia betetzeko, berriz, kartetan jokatu, gimnasia egin eta ibili bezalako jarduerak aukeratzeko dituzte.

Zinema-operatzaileen urteko batzarra

Aurreko asteburuan, zapatuan elkartu ziren Debabarrenako zinema-operatzaileak Eibarren. San Juan Bosco euren patroia egunaren inguruan urtero batu ohi dira zinemetan lan egiten dutenak, urteko batzarra egin eta elkarrekin bazkaltzeko. Azken urteotan egin izan duten bezala, Urko jatetxean batu ziren eta bapo bazkaldu zuten, giro onean.




LEIRE ITURBE

ORAIN DELA

10 urte

1998-II-13
224. ZKIA.

Naiara Larrea bigarren sailkatu zan Espainiako txapelketan.



Lur industrialaren biharra agertu zeban Udal Ekonomia sailak.

- Bilboko erakustarokian arrantza eta etxeko tresmen erakusten Eibarko Udalaren stand-a eta herriko lau artisau (Mari Asum Nogue, Valentín Urizar, Jose Antonio Bastida eta Xabier Salegi) izan ziran.
- Naiara Larrea atleta Espainiako aspitxapelketa gertatu zan Sevillan partizako jaurizan. Urtean, zainera, jurtiketa leuzan Gipuzkoako txapelketa absolutua izan zan jaurian, Deputateko 12 atleta tartian ziralan.
- Pedro Zelaiari amonaldia egin jakan hil zala 4. urteurrena betetzen ziran eta Amnako plaza barriari bere izena eman zuten. Herriko parrokia danak batu ziran misioarearen aldeko egunian.
- Herriko lur industrial gehiago bitan zala esan zeban Amnako Udaleko Ekonomia eta Industria sailleko zimegintzarak. Hamabost enpresa Anitaindik kampa gertatu ziralan eta, 12.000 metro² eskatu zituan.

Mendizale eibartarra hil da Pirinioetan

Barixakuan Hiru Erregeen Mahaian hil zen Asier Urzelai 31 urteko mendizale eibartarra, izotza zapal-tzean labandu eta 200 metro behera amildu eta gero. Erreskate-ekipoak ailegatu orduko ezin izan zuten ezer egin gaztea salbatzeko eta barixaku arratsaldean bere gorpua Nafarroako Lege Medikuntza Institutura eramane zuten, han autopsia egiteko. Gaztearen familiakoak eta lagunak hara abiatu ziren barixakuan bertan, baina zapatu goizera arte ez

zioten autopsiarik egin. Gorpua zapatuan ailegatu zen Elgoibarko tanatoriora eta han egon zen, astelehen goizean erraustu zuten arte. San Andres elizan bere alde egindako elizkizunean elizak zein elizatariak jendez gainezka egin zuten, gaztea herrian oso ezaguna baitzen. Gaztearen heriotza kolpe latza izan da ezagutzen zuten guztientzat.

Urzelai oso mendizalea zen eta ondo ezagutzen zuen istripua gertatu zeneko ingurua, sarritan ibilia baitzen Pirinioe-



tan. Beste lagun batzuekin batera asteburu pasa joan zen eta mendia igotzeko unean berarekin beste lagun bat zihoan; beste gazte horrek eman zuen istripuaren berri Iزابako kanpingean eta handik abisatu zituzten larrialdie-

tarako zerbitzuak. Laguna ere atenditu behar izan zuten, ez-beharrak eragin zion inpresio-arengatik. Lerro hauen bitartez Asierren familia eta lagunekin bat egiten dugu une latz hauetan eta gure atsekabea adierazi nahi diegu.

Gurutze Gorriaren ikastaroak



Sorospen ikastaroa, geriatría arlokoa eta ur-sorospenaren ingurukoa antolatu ditu Eibar-Ermuko Gurutze Gorriak. Lehen laguntzarako ikastaroa otsailaren 11tik 22ra emango da Ermuko San Lorenzo ikastetxean, astelehenetik barixakura, 18.00etatik 21.00etara (30 ordu); nagusiak zaintzeko ikastaroa, berriz, otsailaren 25ean hasi eta martxoaren 7an amaituko da. Hau ere, Ermuko San Lorenzo ikastetxean

emango da, bestearen ordutegi berean; eta hirugarren ikastaroa martxoaren 1etik apirilaren 5era arte emango dute, zapatuetan, 09.00etatik 20.00etara. 50 ordu izango dira guztira eta Ipurua kiroldegian izango dira klaseak. Informazio gehiago behar izanez gero edo matrikula egiteko zuzenean jo daiteke Gurutze Gorrira (San Lorenzo-ko peajearen aldamean) edo 943176248 telefono zenbakira deitu.

Urkiko gurutzia zaharberritu dabe


Urkikurutzekoan (Urki-Kurutzekuan) jaso dittuen etxe barrixak amaittuta, aldamenian ipiñi dabe Urkiko gurutzia atzera be. Urtarrillaren 21ian bueltau zan gurutzia bere jatorrizko tokira, zaharbarritze prozesu baten ostian eta aurrezantzia hantxe egongo da. Zaharbarritze lanak Giorgio Stunner harrizetan adituak egiñ dittu: Stunnerrek harrixa garbittu,



sendotu, zittuan matxurak konpondu eta beste hainbat lan egin detsaz gurutzari. Gurutzia horretarako premiñia bazekan eta, inguruan etxe barrixak egin dirala aprobetxauta, horretarako tartia hartu dabe. Stunnerrek Lezoko bere taillarrian euki dau Urkiko gurutzia konpontzen eta, handik bueltan, lehengo moduan ipiñi dabe: amabirjiñaren irudixa Elgetara begira eta Jesukristorena, barriz, Eibarri begira.

XVI. gizaldiko artelana

Gurutzia kare-harrizkoa izanda, urtekin harrixa jaten zoian eta hori konpontzen jardun dau Stunnerrek. Lehengo fase batian, 2007ko sanjuanak pasauta Stunnerren enpresako ordezkariak gurutzia-eren egoeria ikustera gerturatu ziran. Bigarren fase batian, gurutzia Lezora eruan eben, han gurutzia zaharbarritzeko bihar ziran elementu eta baliabidiak zittuelako. Harrixa garbittu, produktu berezixak erabilitta sendotu, burdin zatixak altzairu herdoilgaitzagaittik kanbixau, moldurak osatu eta gurutzia atzera be montatzeko



elementuen prestaketa etorri ziran gero. Urtarrilla amaieran bueltau zan gurutzia Urkira eta azken tratamientua han bertan emongo detse.

Urkiko gurutzia XVI. gizaldixan Elgetatik Urkira zoian bidian eguan eta 2004ko ekaiñaren 28xan han etxe barrixak egitteko kendu eben. Harrezkero Matsarixako tuneleko biltegixan gorde zeben, zaharbarritze lanak egiñ eta atzera be Urkira bueltau aurretik.

Santa Ageda erromerixia Agiñaga auzuan

Santa Agedako erromerixia egingo dabe Agiñagan asteburuan, domekan 11.00etatik aurrera, auzoko ermittia Santa Ageda eta San Romani eskindutakua izanda bestela izan ez leikian moduan. Mezia eta gero, musikia eta pintxuak ez dira faltako erromerixarekin bat egittia nahi daben guztiendako.

Santa Agedari eskindutako erromerixia ohittura haundiko jaixa da Eibarren. Holan, Juan San Martinek 'Antzinako Eibar-Temas de Etnografia del antiguo Eibar' liburuan jasotzen daben moduan, "San Roman

ermittan XVI. Mendeko Santa Agedaren irudi bat dago, eta Eibar, Barinaga eta Markiña-Etxeberriko baillarako basarritarrak deboziño haundixa de-

tse". Gaiñera, San Martinen berbetan, "haundun daguzen emakumiak otoiñt egittera jauten dira eta baita kandelak ixotzera be".




Horretan bat dator Luis Pedro Peña, Gipuzkoako jai eta erromerixeri eskindutako tesuan: "Agiñagan, Santa Ageda bezperan, bertsolarixak eta auzokuak sortutako abesbatzak lagunduta, inguruko basarritarrak santari eskindutako koplak kantatzen zittuen". Ermittan Berpizkunde sasoiko irudi polikromatua dago eta ohitturia horren inguruan sortuko zala pentsatzen dabe. Gaur egunian, jaixa asteburura pasauta be, aspaldiko ohitturiari eusten detse Agiñagako basarritarrak, meza eta erromerixa berezixak antolatuta.

FELIPE ARAKISTAIN AZPIRI

urtarrilaren 29an hil zen, 73 urterekin

Bere emaztea M^a Carmen Uriarte Etxaniz
eta sendikoen izenean

**ESKERRIK ASKO hileta-elizkizunetara joan
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi**



- Azken egunotako gertakariak lku-sitta, zelako irakorketla egitten dozue situaziño poltikkuaren gaiñian?

Ilegalizaziñuaren kontua ez da barrixa guretako, azken bost urtiotan bizi izan dogun zeozer dalako, Eibarren behintzat. Baiña ANV-EAE legez kanpo lagatziak egoeria larriagotzen dau naziño maillari begiratuta, Eibar maillan eta Udalarri begira geuk berdin segiduko dogu-eta, eurak oztopuak ipintzen eta geuk oiñ arte erakutsi dogun jarre-rarekin.

- Zeuek udaletxietan ez egotlak zelako eragiña dauka herri maillako politikagintzan?

Argi dago ANV-EAE lanian daguan udaletxietan edo gu udaletxian egon garanian gauzak oso diferentiak izan dirala. Momentu honetan Eibarko Udalbaketan ez da apenas eztabaidarik egoten, hortxe dago Eli Gómez, baiña, bestela dana aho batez onartzen da. Lehen ez zan holakorik pasatzen, eztabaida luziak egoten ziran aprobau edo ez aprobau aurretik. Azken batian gauza inportantien gaiñian dihardugu berbetan. Begira zelako erabagixak hartzen dihardue, adibidez, soldaten gaiñian: iaz birritan igo zittuen soldatak eta aurten atzera be igoeria onartu dabe. Askok esaten deskue guk be aukeria euki ezkerre gauza bera egingo gendukela, baiña gu gagozen Udaletan kontrako neurrixak hartu dittugu, soldatak bajau egin dira. Gure esku egon dan tokixan ez da holako iruzurrik egin. Adostasun horrek imagen falsua sortu dau, jendiaren partehartziari atiak itxi jakoz. Gure proposamen eta aportaziñueri ez detse jaramonik egitten eta egitten dittugun galdereri be ez detse erantzuten. Bazterketia totala da. Ezker abertzalia ez egotian sortzen dan hutsunia injustizia da eta, gaiñera, horri esker benefizio zuzenak lortu di-



LEIRE ITURBE



SILBIA HERNANDEZ

“Egoeria larrixa da eta demokrazia ezak danori eragitten desku”

ttue, guri ukatutako ziñegotzixereri esker PSE-EEk ziñegotzi gehixago lortu dittalako eta EAJk indartze falsua euki dabelako, boto kopuruan gorakadarik emon barik banaketan ziñegotzi gehixago hartu dabelako.

- Halanda be, udaletxian ez egon arren, biharrian segitzen dozue, ezta?

Gaur bertan Txontakuekin egon gara eta horren gaiñeko monografikua kale-ratuko dogu, gure jarrerria azaltzen. Plaza merkatuaren proiektuan be patrimoni-xo publikua saldu da maketarekin zerikusirik eukiko ez daben eraikiña jasotzeko, Azittaingo biala... oso gauza larrixak dagoz pasatzen eta penia da iñork ez detselako kontrarik egitten.

Herritarren protesteri kaso egitteko prest dagoz ezker abertzaleko ordezkariak. Txontako bizilagunekin alkartu eta gero, horren gaiñeko monografikua kaleratuko dabe.

Guri informaziño gitxi pasatzen deskue eta berandu, eta ez gagoz beste munduko ezer eskatzen, akta horrek publikuak dira eta erregulartasun batekin jasotzia besterik ez dogu eskatzen, jarraipena egiñ ahal izateko. Hirigintza kontueri seriotasunez heltzeko asmua daukagu.

- Hauteskundlak hortxe bueltan dagoz. Zer egingo dozue?

Kalera urtengo gara mobilizaziño guztietan parte hartzera. Egoeriaren larritasunaz jabetu bihar da jendia, demokrazia ezak danori eragiten desku. Egoeria ez da erraza eta konponbidia ez dago gure esku. Bide politikua aspaldi hartu dogu, baiña bide horri heltzeko esaten deskuenak ez deskue lagatzen bide horri jarraitzen. Gu etenbarik lan egitteko prest gagoz eta gu egon barik hauxe ez da iñoiz konponduko, ezin dittue ordezkari guztiak kartzelara sartu. Gure proposamena hortxe egongo da, baita hauteskundietan be. Bere momentuan, gure alde botua emon nahi dabenak horretarako aukeria eukiko dau, etxe guztietara banatuko dira papeletak eta korreoz botua emon nahi dabenak horretarako aukeria be badauka. Bittartian, jendia nahasteko esaten diraneri kasurik ez egin.



Elixia eta politikia: alkar lotuta jua bihar dabela diñue batzuk, beste hainbestek autonomuak izan bihar dabela... Gizarte zibillaren funtzionamenduaren arduria Estadua izan bihar dala argi

dake askok, baiña elixiak hor zeresan haundixa dakala be siñisten dabe beste askok. Kontraesana, askotan, "segun eta zer" esaten dabenaren arabera da: Espaiñako Obispuen Konferentziak gitxi gorabehera nahiko argi laga dabenian kristauak botoa zeñeri emon bihar detsan honetan, oin dala pare bat egun entzun ahal izan detsagu politiko bati elixiak eskubide osua dakala, espresio askatasunaren mesedetan, bere eritzia kaleratzeko, hori bai, jarraixan eta kazetarixak euskal elixiak igual gauza bera ez dabela pentsatzen esandakuari hórrek hobe leukiela ixillik egonda erantzuteko. Hori ba, nirekin ados badagoz, ordua zan eta "egi berdaderua esan dabe"; oin, kontrakua badiñue, "geratu daittezela etxian". Noizbehinka halakuak suertatzia be normala da, Estadia berez indartsua izatiaz gaiñ, elixia be botere faktikua deitzen jakon horretakua izaten urtiak be badaroiazelako. Dirulaguntzak be tartian izatian, horrek be badaka bere garrantzixa. Gure modelua, gaiñera, estado akonfesionalarena da eta elixiak gizartian parte hartzia normaltasunez hartzen dogu; estado laikueta, Frantzia edo Turkia esaterako, beste gauza bat da.



Demetrio Frías trokelegillia

Neri elixia ez jata iñoiz asko gustau. Gaiñera, nik uste dot ez dala politika kontuetan sartu bihar, eurak elixako gauzetan ibilli biharko litzakez, ez beste ezertan. Nik ez dot politikaz asko ulertzen, baiña ez dot ondo ikusten batzuk esatia zeñi bozkatu bihar dan eta zeñi ez.



Teresa Larrañaga 59 urte, langabetua

Ez dot ondo ikusten, ez jatalako begittantzen elixia politika kontuetan sartu bihar danik. Bakotzak beran ideiak dittu eta ez dago ondo elixia politika gauzetan sartzia nere eritziz. Bakotzak pentsau bihar dau nahi dabena, ez elixiak esaten detsana.



Jorge Mora 49 urte, langabetua

Ez nago ados elixia politika kontuetan sartziarekin. Neri begittantzen jata elixiana elixan eta politikakua politikan geldittu bihar dala. Bakotxa beran lekuan, tokatzen jakozen gauzak egiñ eta bestiaren gauzetan ez sartu. Holan, ez dot ondo ikusten elixiak oiñ egiñ dabena.



Ines Blázquez 55 urte, etxeoandria

Uste dot elixia ez dala sartu bihar politikan, gai honetatik kanpo geratu bihar da. Politikia politikuendako eta elizia elixakuendako. Gaiñera, elixiak esandakua erlijiosuen artian, katolikuen artian, eragiña eduki leike. Halanda be, seguro nago elixiak esaten dabenak nigan ez dabela eragiñik edukiko.

Zelan ikusten dozu elixia politikan sartzia?

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errausketa labea Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

KATU KALE

TABERNA  BIDEBARRIETA, 1

Garitana

1957an sortua
GOZOTEGIA

- ETXERA banatzen dugu
- Ezkontza eta despedidetarako TARTAK

Julian Etxeberria, 6
Tel. 943 20 24 51

Mundu margotu berri bat' lana aurkezten du oraingo honetan Kokeinek. Haritz Lete bateria-joleak aipatzen duen bezala, "ez da oso koloretsua. Askok esan digute ea zer kolore dituen guk erakusten dugun mundu honek eta askok oso koloretsua balitz bezala hartu dute, baina benetan ez ditu kolore asko, nahiko iluna da". Hala ere, iluntasun guzti horren aurrean esperantzarako, argitasunerako, bidea badagoela aitortzen du Letek. "Ez dugu esperantzarik galdu, baina bai, nahiko iluna da diskoa, hala ere, ez guztiz beltza". Munduaren ikuspegi ilun horren aurrean Kokeinekoak ez dira ezkorrak, "errealistak gara". Errealitatea islatzen dute 'Mundu margotu berri bat' lanean eta errealitate hori gordina da, "baina horrek ez du esan nahi errealitate horren gauza onetan pentsatzen ez dugunik edo esperantzarik ez daukagunik". Gai sozialak jorratzen dituzte lan honetan, "lan istripuak, ate joka dabiltzan etorkinak, gizakiaren nondik norakoak (zenbakien menpe gaudela), drogen ondorioz bidean geratu diren lagunak, 18/98 epaiketa eta abar", baina baita sentimenduak ere, "momentua bizi behar dela, norberaren ametsak lortzeko batzuetan indarra egin behar dela eta abar", dio lker kitarrajoleak.

DVD-a diskoarekin batera

'Lotuta egon arren' diskoa atera zutenetik hiru urte igaro dira. "Askok esan digute denbora asko dela eta ea geldirik egon garen edo zer, baina ez da horrela izan, ez baikara gelditu". 2004ean kaleratutako diskoa behin eginda, kontzertuak eskaintzen aritu ziren, "baina heldu zen garai bat ez geneukala hainbeste emanaldirik eta gure abestiek jolas-teko aprobetxatu genuen, era akustiko batean interpretatuz". Jolas horiek gehiago landu zituzten Kokeinekoek eta 2006-

Indartsu datoz, gogoz, inoiz baino rockeroago. Kokein taldeak disko berria plazaratu du. 'Mundu margotu berri bat' (Gaztelupeko Hotsak, 2007).

Eibartarrak, beraz, bueltan dira azken diskoa egin eta hiru urte beranduago. Boskoteak musika bizi du eta euren lanetan igartzen da, duten guztia jartzen dute egindakoa euren eta besteen gustokoa izan dadin.



Rock kolorez margotutako mundua

an hamar kontzertu akustiko eskaini zituzten. Kontzertu horietako bat, gainera, grabatu egin zuten bideoan, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian egin zena. Orain, 'Mundu margotu berri bat' diskoarekin batera, Espaloian grabatutako kontzertu hori eskuratu ahal izango da, DVD-an, biak batera salgai daudelako. 2006an akustikoa utzi eta kontzertu elektriko batzuk eskaini ostean, buru-belarri jarri ziren lanean disko berriarekin Kokeinekoak. "Poliki-poliki abestiak sortzen hasi ginen, lokalean sartuta eta, azkenean, 2007-ko abuztuan lana grabatzen hasi ginen", aipatzen du Letek.

Musika munduan ibilbidea

hasi zutenean, taldeak beste 'txip' bat zuela aitortzen du Haritzek. "Musika egiteko eran eta, orokorrean, denean". Orditutik hona asko ikasi dutela aipatzen du Letek, "onerako eta txarrerako, hurrengo batean

zer egin nahi ez duzun ere ikasten duzuelako". Urteak urtera, diskotik diskora, ikasten joan da taldea, "gure musika garatzen joan da eta eboluzio bat bizi dugula esan daiteke". Letek, bestetik, Kokeinen kide guztien nortasuna azpimarratzen du, "bakoitzak bere nortasuna ematen dio taldeari eta hori igartzen da, badaude taldeak zer jo behar duten esaten diena, baina hori ez da Kokeinen kasua".

Disko rockeroagoa

Talde gehienek eboluzio bat bizi dute, garai guztiak ez dira berdinak eta momentu bakoitzak berea eskatzen du. Kokeinek bide hori jarraitu du. "Inoiz egin dugun lanik rockeroena da hau", esaten du Letek. "Erritmo aldetik egin dugun disko bizkorrena da". Rockeroena bai, baina anitzena ere. "Disko irekia da, Kokein bezala". Estilo ugari lantzen ditu taldeak 'Mundu margotu berri bat' lanean, "abesti mota ezberdinak egin ditugu". Aurreko lanekin alderatuta alde bat dagoela aitortzen du Haritzek, "lehenengo diskoan Rafa Rueda lagundu zigun ekoizpenean eta bide bat hartu genuen; bigarrenean, bestetik, abesti rockeroagoak egin genituen, Rafa Rueda eta gure arteko elkarlan batean, abestien norabidea zehazten hasi ginelako; eta azken disko hau zabalagoa da, lokalean dena landu genuelako eta grabatzera joaterako orduan abestiak sortuta zeudelako". Estudioan, hala



Gaur Coliseoan eskainiko duten kontzertua berezia izango dela argi dute Kokein taldeko partaide guztiek.

MADDI SOROA



Taldeko kideek elkartasun handia duela azpimarratzen dute.

ere, moldaketa batzuk egin ziztuzten, "gauza batzuk aldatzea egokia zela ikusten bagenuen, ba aurrera". Lete bera eta PILT-ko Xanpe egon ziren teknikari lanetan eta azken honen aholkuak lagungarriak izan ziren talde eibartarrantzat.

Talde moduan inoiz baino gehiago egin dute lan 'Mundu margotu berri bat' diskoan Kokeinekoek. "Denbora ugari pasatu ditugu elkarrekin, beste grabazioetan bakoitzaren lana, oporrak edo dena delakoagaitik, bakoitzak berea grabatzen zuten bere aldetik; baina lan honetan ia egunero, ez beti, denok elkarrekin egon gara", adierazten du Letek. Bateratasun hori emaitzan igartzen da, talde bat dira eta taldeak bere onena at-

ra du diskoan. Elkartasun handi hori taldeak lan egiterako orduan asko igarri dela azpimarratzen du baterajoleak. "Giroan, erabakiak hartzeko orduan, gauzak probatzerakoan eta abar". Taldekide guztiak gauza guztietan parte hartu dute lan honetan, "beti esan dugu denok denetarik egin izan dugula, baina kasu honetan gehiago, hori da aurreko lanekin alderik handienetarikoa".

Ekoizpen lanak Kokeineko taldekideen esku geratu dira, eurak arduratu dira atal horretaz, nahiz eta PILT-ko Xanpek ere aholkuren bat edo beste eman. Kokein musika munduan heldutasun puntu batera heldu dela aipatzen du Letek. "Heldutasuna, guztiz, ez dakit lortzen

SGAEren lizentzia ez eskatzea erabaki dute Kokeinekoek

den eta heldutasuna lortzea jakin beharreko guztia jakitea bada, esan dezaket taldea ez dela heldua, ikasteko asko dugulako oraindik, beraz, heldutzen goazela esan daiteke".

Creative Commons lizentzia

Diskoa kaleratzeko orduan ohikoa ez den bide bat aukeratu du Kokeinek. SGAE-rekin atera ordez, Creative Commons lizentziarekin eraman dute aurrera proiektua. "Ez gaude batere ados SGAE-ren filosofiarekin eta horregaitik erabaki genuen Creative Commons-ekin ateratzea". SGAE-rekin lizentzia izanda, edonork erabili dezake zure musika ordainduz gero eta "zuk ezin duzu ezer egin". Creative Commons-en filosofia, bestetik, ezberdina da. "Norbaitek zure musikarekin dirua ateratzea nahi baldin badu, zure abestien bertsio bat egin nahi badu edo norbaitek zure musika erabiltzen badu, lehendabizi zurekin jarri behar da kontaktuan, baimena izan behar du, diru truke edo ez eta, gai-

nera, aipatu behar du norena den abesti hori". Erabaki honekin, 'copyright'-a beharrean, 'copyleft'-a izango du Kokeinek. SGAE-k tarteak lana egiten du musikari eta musika hori kontsumitzen duenaren artean, "eta horregaitik dirutza handia jasotzen dute. Musikoek ere diru bat jasotzen dute, baina SGAE-k lortzen duenarekin alderatuz, kopurua txikia da". Oso pozik agertzen dira Kokeinekoak hartu duten erabaki honekin, "Gaztelupeko Hotsak-ekoek ez digute arazorik ipini eta oso ondo, oso pozik gaude", aipatzen du Letek.

Coliseoak 'Mundu margotu berri bat' lanaren estreinaldia jasotzeko ohorea izango du gaur 22.00etan. Gaurko kontzertuaren gainean galdetuta "kristorena izango da, egurra egurraren gainean", erantzuten du Iker kitarrajoleak. Abesti berriez gain, zaharrak ere entzuan ahal izango dira. "Berezia izango da, familiakoak eta lagunak bertan izango direlako", aitorzten du Ikerrek.

Coliseoko kontzertuaren ostean, bira egingo du Kokeinek. Euskal Herrian eta beste hainbat lekutan euren musikarekin egongo dira. Mundua margoitzeko musika.

Herri Irratia Eibar
Loyola Media

S.D. EIBAR - CELTA DE VIGO

Jarraitu partidua:
Borja Rodríguez
eta Herri Irratiko
kiroletako taldearekin

Otsailak 10 domeka, 17.00etan

90.7 Fm

teen-ajeak



Rakek Moram 21 urteko jartea urritik Maixa tabernaren jabea da, leire lanearekin batera. Gogotsu dihardute lanean biak eta orain arte gauzak oso ondo doazkie.

“Arriskatu genuen taberna hartzerakoan”

- Zer dela eta hartu zenuen taberna?

Leirek eta biok taberna berean zerbitzari ginen eta, besteentzat lan egin beharrean, geure buruarentzat egitea pentsatu genuen. Maixa hartzeko aukera zegoen eta aurrera egin genuen.

- Taberna munduan esperientziaduna zara.

Lau urte daramatzat ostalaritza munduan. Lehen genuen nagusiak asko lagundu digu Maixa taberna martxan jartzeko orduan: jarraitu beharreko pausuak, paperekin... Bestalde, barran egoitea ez da berria guretzat.

- Zaila da taberna bat aurrera ateratzea?

Laguntza izan dugu eta oso zaila ez da, baina arriskatu beharra dago eta erantzunkizun handia da. Lan asko egin behar dugu: goizean goiz gosariak ematen ditugu (opilak, croissantak...), pintxoak, bokadiloak eta abar.

- Zein alde on ditu taberna propioa izateak?

“Nahi duzuna” egiten duzu, ez duzulako inor gaitetik. Ekonomikoki ere beste independentzia bat daukazu eta autonomia izanda erreztasun gehiago dituzu gauza batzuetarako.

Kamera sorbalda

Goya sariak. Alfombra gorria, estatuko izar distiratsuenak handik hona, luxu iberiarra. Oscar sariak. Glamourraren klimaxa, zineko aurpegi ezagunenak, milioiak balio dituzten jantziak, harribitxiak, flashak, aktore eta aktorea ederrak, Kodak antzerkia. Euskal Herriko III. Ikus-entzunezkoen Rallyaren saria. Ez dago alfombra gorriak, bakero eta sudaderak, ordenagailuak leku guztietan botata, desordena, jendea handik hona korrika. Azken finean, hiru egintzek dute xede bera: ikusentzunezkoak saritzea.

Topaguneak antolatuta, Euskal Herriko III. Ikus-entzunezkoen Rallya antolatu zen Elgetan abenduaren 29an. 18 eta 35 urte bitarteko gazteek osatzen zituzten Euskal Herriko hamabi taldek hartu zuten parte bertan, guztira 75 bat lagun. Goizeko 9.30etatik arratsaldeko 19.00etara arte, gidoia idatzi, grabaketa egin eta dena editatzeko denbora izan behar zuten parte-hartzaileek. Gainera, beste zailtasun handi bat izan zuten denek, hasi aurretik esan baitzieten zein izango zen jorratu behar zuten gaia: ‘in-txor-ta(n)’.



HOROSKOPOA

ARIES

Iluntasunaren barruan argitasuna aurkitzeko aukera izango duzu aste honetan. Pentsatzen bazenuen dena okerrera joan behar zela, lasai, ez da horrela izango. Zerbaitetan jokatzeko baduzu apuntatu zerbaki hau: 3.

TAURUS

Duela urte batzuk gertatu zen zerbait etorriko zaizu burura eta aste osoan kontu horri bueltak eta bueltak ematen egongo zara. Oroitzapenak hori dira, oroitzapenak, beraz, ez dute orainaldian eragin handirik izan behar.

GEMINI

Ajea oraindik? Normala, Aratosteak ederki aprobetxatu dituzu eta aste honetan zure gorputzak ederki ordaindu ditu egindako golferiak. Txarrena, horrelakorik berriz egingo ez duzula entzutea da, denok baitakigu nolakoa zaren.

CANCER

Inoiz baino alaiago zaude, Cancer maitea, eta izugarri igartzen zaizu. Egia esan, merezi zenuen horrelako garai bat bizitzea, azkenaldia ez baituzu barre egiteko aitzakia handirik eduki. Aprobetxatu itzazu egun hauek!

LEO

Eguaztenean ez zaizu ezer zuzen irtengo. Egiten duzuna egiten duzula, dena oker aterako zaizu. Azkenean, barregarria izatera pasako da kontu hori, gafe bat bezala izango duzu. Ez zaitetz pasatu eskailetatik.

VIRGO

Bikotea lortzea buruan bazenuen hau izan daiteke astea. Zure ilea, gorputza, aurpegia... inoiz baino erakargarriagoa egongo zara eta inor gutxik esango dio ezetz zure proposamen bati. Ausarta izan behar zara!

LIBRA

Badakizu bizitzan ezusteko handiak gertatzen direla, bai onak, bai txarrak, baina denak hartu behar dira ahal den bezain ondoren. Hankak lurrean izan behar dituzu eta, behar bada, hiru aldiz arnasa oso sakon hartu.

SCORPIUS

Burugorregia zara eta badakizu hori ez dagoela batere ondo. Besteek esandakoa adi entzun eta ez pentsatu beti arrazoia duzunik; horregatik ez zara besteak baino gutxiago izango. Gehiago ere ez, jakina! Lasai jardun.

SAGITTARIUS

Datorren urtean Rio de Janeirora joan beharko zinateke, Aratosteak zugar sortzen duten poztasuna ez baita normala! Hainbeste barre, dantza eta kantu, sekulako egunak pasatu zenituen. Datorren urtera arte itxaron behar orain!

CAPRICORNIUS

Bidaiazteko grina sartuko zaizu aste honetan. Uda, nahiz eta oraindik txamarrarekin ibili, uste baino gertuago dago, denbora oso azkar pasatzen baita! Beraz, ametsak betetzeko aurreztu eza, bestela jai duzu!

AQUARIUS

Muxu bat. Ez duzu besterik eskatzen. Hain garesti daude muxuak gaur egun? Hala zure arazoa da soilik? Irekiagoa izango bazina, besteak zurekin irekiagoak izango lirakeke. Nolako prezioa ordaintzeko kapaz zara?

PISCIS

Antzerkirako eginga zaude. Pentsatu al duzu herrira hurrengo egunetan datozen antzerki zuzendari zure curriculum ematea? Badakizu, izar handiak behetik hasten dira. Zure aukera hemen egon daiteke, hemendik Hollywoodera!

gainean Elgetan

Parte hartu zuten hamabi taldeen artean eibartar batzukeuden: 'Loguria taldea', Amaia Jaio, Irune Jaio, Jatsu Argarate, Unax Blanco eta 'Pana'-k osatzen dutena. Horrelako rally batean esperientzidun taldea da hau, izan ere, 2005ean Eibarren egin zen Euskal Herriko I. Ikus-entzunezko rallyan partu hartu zuten eta, gainera, sarituak izan ziren.



'Loguria taldea' bigarren

Rallya hasi eta berehala gidoia prestatzen hasi ziren talde guztiak. 'Loguria taldekoak' ere horrela hasi ziren, 'intxorta(n)' gaia nola jorratu pentsatzen. Elgetako mendi honetan, Gerra Zibilaren garaian, hainbat pertsona fusilatutak izan ziren eta horrela hasten da talde eibartarraren ikus-entzunezkoa ere, "pertsona baten fusilamenduarekin", Amaia Jaioren hitzetan. 'Hirugarren zenbakia' da euren lanaren izenburua, izan ere, Intxortan hainbat hilobi daudelako eta hirugarrenari egin nahi izan ziotelako omenaldia.



Eibarko taldeak Elgetako Espaloian egindako ekitaldian jaso zuen rallyko bigarren saria.

Presak ziren nagusi talde guztien artean, gauza asko zegoen egiteko eta denbora murrizta zen. Amaiak aipatu bezala, "denek egin genuen denetarik". Hirugarren hilobi hori oinarri hartuta, istorio bat asmatu zuten gidoia egiteko orduan. Ardatza kontuan izanda eta zer egingo zuten jakinda, grabaketaren ordua iritsi zen. "Nahiko ondo joan zen dena, ez genuen arazo handirik izan", esaten

du Amaiak. Bai mendian, bai Elgetan grabatu zituzten euren irudiak 'Loguria taldekoek', baina irudi horiek eskuratzearekin ez zen lan guztia bukatzen. Edizio lana egin beharra zegoen, hori izan zen azken pausoa.

Egun osoa lanean ibiltzeak merezi izan zien eibartarrei. Gaueko 22.00etan, erabakia asko pentsatu ostean, epaileek sarituak zeintzuk ziren jakitera eman zuten: 2. postua 'Loguria taldea'-rentzat eta, horrekin batera, 1.200 euro. Egun zinematografikoa amaitzeko era paregabea.

ProiektEIBAR lehiaketa

Proiektu Teknologikoentzat lehiaketa antolatu dute Industria Injeniaritza Tekniko eskolak eta Debegesak. Batxilerra edo Goi Mailako Heziketa Zikloak ikasten dihardutenek har dezakete parte lehiaketan, zientzia-teknologia arloko proiektuekin (elektrizitatea, elektronika, mekanika, neumatika, automatismo, informatika, telekomunikazioak...). Proiektuak arlo bat baino gehiago lantzea posible da eta sari berberak banatuko dituzte lehiaketan bereiztuko dituzten atal bietan (Batxilergoa eta Heziketa Zikloak): 600 euro, 300 euro, 200 euro eta 100 euro. Proiektu gehien aurkezten dituen ikastetxearentzat sari berezia emango dute (ordenagailu portatila). Lanak aurkezteko azken eguna martxoaren 1a izango da. Lehiaketaren inguruko zehaztasun guztiak www.euiti-eibar.ehu.es helbidean kontsultatu daitezke.



**ASIER
URZELAI GISASOLA
OTSAILAREN 1-EAN HIL ZEN,
MENDIAN ISTRIPUZ,
31 URTEREKIN**



*Zurekin batera pasau
dittugun momentu
edar guztiak betirako
geratuko dira gurekin.*

Zure lagunak



Kaldererok



ARRATOSTEAK 2008



**Kale
giroa**



Eguen Zuri



**Merkatu
Plaza**



Aldatze



Le Salle



San Andres





**Kokojantzi
desfilea**

Play-back



**Sardinaren
entierroa**



**Umeen
diskoteka**



Urkizu



Ikastola



Abadiñoko San Blas Torneoa Bihurrirentzat

Maila onean jardun zuen beste behin Ernesto Ezpeleta "Bihurri" Eibarko aizkolariak Abadiñoko jaien barruko egitarauan antolatutako torneoa. Floren Nazabal lagun zuela, ia minutu bateko tartea atera zioten Larretxeak eta Zelaik osatutako bikoteari eta 3. postuan sailkatu zen Lopez Azpilikueta Euskadiko azpitxapeldunak eta Floresek osatutako bikotea. "Oso egur ona izan genuen, Urbasakoa; moztutako zortzi



enborrak, gainera", dio Bihurrik. Hasieran parekotasun handia izan bazen ere, 5. enborre-

tatik aurrera ihes egin zuten azkenean irabazleak izango zirenek. Ordu erdiko bueltan

egindako norgehigokaz aparte, kolpe eta abiadura lehiak ere egin ziren eta hor kolpeko lehia eibartarrak irabazi zuen.

Abadiñon protagonista izatera ohituta badago ere, azken aldian telebistan ere agertu da gure herriko aizkolaria. Horrela, astelehenean "Tienes talento" programan hurrengo fase-rako sailkapena lortu zuen, motozerrarekin aulki bat eginenez eta enborra esku batez ebakiz.

3.200 zale baino gehiago eskubaloia ikusten

Aspaldi ikusi ez den sarrera izan zuen domekan jokatu zen Arrate-Portland partiduak eta hiru milatik gora ikusle, bakarrik oso kasu berezietan batu den jende kopurua, izan zen partidua ikusten. Agintari asko izan zen, gainera, partiduan: Markel Olano diputatu nagusia, Edurne Egaña diputatua, Iñaki Ugarteburu Kirol Zuzendaria, udal ordezkariak -alkatea tartean zela eta baita Fernando Asenjo eta Juan Carlos Carro, Euskal Eskubaloi Federazioko presidentea eta presidenteordea ere, hurrenez hurren. Portlandeko Ivano Balic-ek, munduko jokalaririk onena izendatua behin baino gehiagotan, azpimarratzeko jarrera izan zuen ia ordu laurdena egin baitzuen gaztetxoekin eskukoak sinatuz eta argazkiak ateratzen.

Eguaztenean zailagoa izango da hainbeste jende Ipuruan batzea, baina Arratek ahalegin berezia egingo du berriro ere eta eskubaloiari diharduten jokalarien artean eta Eskola Kirolean dabilzaten artean gonbidapenak banatuko ditu. Ciudad Real liderra izango da hurrengo



bisitaria, munduko jokalaririk onenak dituen taldea; eta interesatuta daudenak astelehena baino lehen klubarekin edo Gipuzkoako Eskubaloi Federazioarekin jarri daitezke harremanetan edo, bestela, 943-255001 edo 943-255002 telefono zenbakietara deitu dezakete.

Bigarren itzulia hasteko partiduan 27-30 galdu zuten eibartarrek, atsedenaaldian 15-17ko emaitzarekin aldageletara erretiratu eta gero. Horren ondoren, eguaztenean jokaturako partiduan, 36-30 galdu zuten eibartarrek Bartzelonan, oso maila onean jardun eta gero: horren adibidea da atsedenaaldira 18nako berdinketarekin erretiratu zirela talde biak. Eguaztenekoa izango da aste luze honi amaiera emateko irabazteko ia ezinezkoa den hirugarren jardunaldia. Dena dela, ahalegina egin behar da eta saiatu zirrikitu txikiena ere aurkitzen garaipena lortzeko.

Holke-Beorlegi ikusgarri Montecarlon

Martitzen gauean amaitu zen auto historikoen Montecarloko Rallya, munduan maila altuena duena horrelakoetan, eta Escuderia Eibarko Roland Holke eta Fernando Beorlegi han izan ziren euren Seat 127 txikiarekin, azkenean meritu handiko 6. postua eskuratzeko.

Hirurehun partehartzaitetik gora izan ziren barixakuko irteeran, hainbat puntutatik irtenda, denak hori bai Valencen amaitzeko. Kontzentrazioko etaparen ondoren, domekan hasi zen benetako rallya eta horko hirugarren tramoan agertu zen elurrak mesede egin zien eibartarrei. Astelehen gauean 14. postuan zeuden sailkatuta Holke eta Beorlegi eta azken egunean 6. erainoko jauzia egin zuten.



AKONDIA

Albaitari Zentroa

Julen Arano / M^o Jesus Blanco

Bitto Sarasketa, 12

☎ 943 12 74 15

MUGICA *iturgintza*

- GASA ETA ITURGINTZA
- ALTZARI ETA OSAGARRIAK
- BAINUONTZIAK eta HIDROMASAJERAKO KABINAK
- HANSGROHE GRIFERIA
- AIRE EGOKITUA
- ZORU ERRADIATZAILEA

teuco **hansgrohe**

San Juan 15 - behea
Tfnoa. 943 201 030 / Faxe. 943 207 224

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 ☎ 943 20 33 29 EIBAR

Banako berdinketa gorriurdinez jantzitako Donostiako derbian

Joan den ekainaren 24an Eibar KE-k 2. A mailarako txartela lortu zuen. Zoriona izugarri handia izan zen herrian, ia zoramenara iritsi ziren zaletu armaginak eta askok gauza bat zuten buruan: hurrengo denboraldian Errealaren aurka jokatuko zen derbia.

Zapatuan heldu zen gorriurdinek luzaroan itxaron zuten zita. Nolabaiteko errebantxa gogoia zegoen zaletu eibartarren artean, izan ere, joaneko neurketan porrot mingarria jasan zuten Manixen mutilek, nahiz eta jokoan nagusi izan, bidegabeko penalti baten ondorioz galdu zutelako.

Aste osoan hiriburura bidaiatzeko plana zuten buruan jarraitzaile eibartarrek. Trenez, autobusez, nahiz kotxez, Donostia gorriurdin jantzea zen armaginen asmoa. Aratosteak izanik, gainera, aitzakia ezinhobea zen Easo Ederra elastiko eibartarrek mozorrotzeko. Errealak 950 sarrera laga zizkion Eibarri euren zaleen artean banatzeko, baina Donostia-ra joandako eibartarren kopurua milatik gorakoa zen, bi mila ingurukoa.

Alde Zaharreaan poteoa

Eguardi partean iritsi zen marea gorriurdina Kontxara. Donostiarrek jai giroan zetozen armaginei harrizta begiratzen zieten. Egun historikoa zen eibartarrentzat, baina ez hainbeste hiriburukoentzat. Donostian hanka lurrean ipini bezain laster, jarraitzaile gorriurdin


abesten hasi ziren (hobeto esanda jarraitu egin zuten, bidaia osoan horrela joan baitziren). "Eibar, Eibar", "Eibarpool, Eibarpool, Eibarpool", abesti mitikoak entzun ahal izan ziren Amaratik Alde Zaharrera, eta hortik, Donostia osora.

Alde Zaharrean kokatu zuten euren kanpalekua inbaditzaile gorriurdinek. 'Eibartarra' tabernaren inguruan, 18.30-etan hasiko zen gudarako beroketa ariketak egin zituzten armaginek. Tabernak txiki geratu ziren eta kaleak bete behar izan zituzten. Lurralde gorriurdina bihurtu zen Alde Zaharra, tartean etsai txuriurdinak zeu-



Foball zaletasuna aratoste jaiarekin nahastu zen zapatuko derbi inguruko giroan.

delarik, baketsuak denak. Elkartasunean, partidua hasi aurretiko orduak girotu zituzten talde bien jarraitzaileek, baina behin epaileak hasierako txistua jo eta gero, bakoitzak bere taldea gogoz animatuko zuen, garaipenaren bila.



EKH BELAR

Aratoste giroa

Aratoste eguna izanda, koko-jantziek kolore gehiago eman zioten berez koloretsua zen egunari. Erdi-aroko zaldunak, eskoziarrak, neskaz jantzitako mutilak eta mutilez jantzitako neskak, denetarik ikusi ahal izan zen eibartarren artean. Hala ere, mozorroak mozorro, denek zeramaten ikur gorriurdinaren bat.

Neurketa hastear zen, bide luzea da Alde Zaharretik Anoetara egin behar dena, beraz, kanpalekua altxatu beharra zegoen eta gudalekura abiatu. Baina, Aratoste eguna zen, eta Donostian desfile izugarri eta handia egiten da. Jendetza handia batu zen kaleetan eta desfileak osatzen zuen bidea gurutatu behar zuten jarraitzaile gorriurdinek euren taldea animatu nahi bazuten. Momentu batez, dantza eta mugimendu ezberdinez gozaten zeuden donostiarrek begiak beste leku batean ipini zituzten: "Begira

gorriurdinez jantzitako horiek, nora doa zoro koadrila hori, ez dute batere errespeturik!"

Atzean zegoen desfilea eta, aurrean, Anoeta. Eibartarrez inguratuta zegoen, barruan lekua hartu aurretik azken tragoa hartzeko denbora aprobetxatzen zuten armaginez. Partidua hastear zegoen, iritsi zen momentu historikoa.

Lehen mailako zelaia da Anoeta, luxuz beterikoa, baina hotza. Eibartarrek berotu zuten giroa, 20.000 zaletuen artean puntu txiki bat baziren ere, euren ahotsak zelaiaren alde guttietan entzuten ziren.

Partidua amaitu eta etxera bueltatzeko ordua iritsi zen. Egun historikoa bizi eta gero, iritsi zen Aratosteez gozatzeko momentua, edo gozaten jarraitzeko momentua. Puntu bat ekarri zuen herrira talde eibartarrek, zaletu armaginek inoiz ahaztuko ez duten egun baten oroitzapenak gordetzen dituen puntua.



Gutxi iraun zuen arren, Eibarko zaletuek izan zuten garaipenarekin amesteko tartea. Realaren arean izan zen baloia 1. zatiko denbora gehiengan.



Eski ikastaroak Gipuzkoako mendi federazioarekin

Bi dira Gipuzkoako Mendi Federazioak eskiarekin lotuta antolatutako ikastaroak: bata mendi eskioa da, otsailaren 16/17ko eta 23/24ko asteburuetan eskainiko dena; eta bestea eski teknika, martxoaren 1/2ko asteburuan egingo dena.

Mendi eskio ikastaroa Portalet-Teleran eta Aragus-Napazalen egingo da eta, mendiko eskiaren oinarrizko teknikak menderatzeaz gain, mota eta zailtasun guztietako ibilbideak egiteko gaitasuna lortzea du helburutzat. Elur mota guztietako eski tekniken ikastaroa Baréges-La Mongien edo Luz-Ardidenen

egingo da martxoko lehen asteburuan eta, helburu orokor moduan, elur mota desberdinetan segurtasun handiagoz eta ahalegin txikiagoa eginez jaisteko behar dituen ezagutza teknikoak eman nahi dizkio eskiatzaileari.

Mendi eskioak 185 euroko prezioa du eta elur mota guztietako eski teknika 155ekoa. 15 eta 21 urte bitarteko gazteentzako beka dago, kostoaren %65 kubritzen duena. Interesatuak izena eman dezakete 943-461440 telefono zenbakian eta informazio gehiago jaso dezakete federatuak@gmf-fgm.org e-mailan.

Durango-Azitain foball zaletuen txapelketan

Jardunaldi garrantzitsua izan daiteke asteburu honetakoa foball-zaletuen azken sailkapena erabakitzeko, Azitain iazko txapelketa eta Durango gaur egungo liderra nor baino nor jardungo dutelako domekan 12.00etan hasiko den partiduan. Durangarrek 38 puntu dituzte une honetan eta Azitain lau puntura dago, 4. postuan, azken jardunaldian Aguiñaspirekin bina berdindu eta gero; euren artean Teknografik eta Jose Autos daude, Durangokoak baino puntu bi gutxiagorekin eta gaur egungo txapelketa baino bi gehiagorekin. Talde bi horiek ere domekan jokatuko dituzte euren partidua: Jose Autosek 09.00etan Areto izango du aurkari eta 10.30etan Teknografikek Vivaldiri egingo dio aurre. Goleatzaileen sailkapenari dagokionez, Txokoko Alain dago lidergoan, 17 golekin; Jose Autoseko Baquék jarraitzen dio, 15 golekin; eta Tankemansko Yosuk eta Azitaingo Martinek 14na sartu dituzte.

Domekako hiru partiduez gain, zapatuan honako neurketak jokatu dira: 08.30etan, Txoko-Akats; 10.00etan, Sporting-EzDok; 11.30etan, Eitek-Aguiñaspi; eta 13.00etan, Tankemans-Azkena.

Xakean 3. mailako liderrak

Klub Deportiboko bigarren taldea bere mailako sailkapeneko liderra da, azken jardunaldian Arrasate San Andres D-ri 4-0 irabazi eta gero. Freire, Larreategi, Arroijtajauregi eta Baena, laurak izan ziren irabazle jokaturako partidetan eta, modu horretan, 12 punturekin lidergoa eskuratu dute. 1. mailako taldeak, bestalde, denboraldiko lehen partida galdu zuen Arrasate San Andres B-rekin: 1'5-2'5. Emaizta horrekin, sailkapeneko 3. postuan kokatu dira, 11 punturekin, eta Gros C liderrarengandik puntu bakarrera. Asteburuan kanpoan jokatu dute talde biek: Eibar A-k Donostian eta Eibar B-k Tolosan.



Arrillaga eta Alberdi igerilariak garaile

Neguko Liga probintzialeko 3. jardunaldian, Aitzol Arrillagak senior mailako 400 metro libretako proba bereganatu zuen eta gauza bera egin zuen Markel Alberdik junior mailan distantzia bereko norgehiagokan. Horrez gain, 100 estilokotan, Arrillaga 3.a izan zen eta Alberdi 7.a. Maider Perales, bestalde, hirugarre-


na izan zen 400 libretan eta 100 estilotan, proba bietan, eta Jone Calvok 9.ean amaitu zuen 400 metrokoan. Infantil mailan beste garaipen bat lortu zuten Urbat-Urkotronikeko igerilariak: Nekane Tejedor nagusi izan zen bular erako 200 metrokoan. Martin Aizpirik, bestalde, 5. postua eskuratu zuen 100 estilotan eta Marta Garinek 7.a bizkar eran.



Neurketa garrantzitsua waterpolistentzat

Lehen multzorako mozketan sartzeko aukera guztiak galduta, Urbat-urkotronik waterpolo taldeak partidu interesgarria du asteburuan Sestaon, bertako McDonald taldearen aurkakoa. Bigarren multzokoen artean lehen postuaren bila

jardun behar dute hemendik aurrera eibartarrak eta, horretarako, garaipena behar du Bizkaiko ezkerrean. Azken jardunaldian, partidu serioa eginda ere, 6-15 galdu zuten eibartarrek Iruñarekin, Euskal Herriko txapelketako 7. jardunaldian.



**NEURE BURUA NIK NEUK
GIDATZEKO PREST!**



WWW.MONDRAGON.EDU/PREST

PREST



**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

Antzerki Jardunaldixeri hasiera emoteko hitzaldixa eskinduko dau bixar Coliseo antzokixan, 19.00etatik aurrera, Juan Ortégaren gidaritzapian. Hillaren 17xan, barriz, Carmen de la Maza eta Aitor Gaviria aktoriekin batera 'Me llamo Juan Ramón Jiménez...?' lanian biharrian ikusteko aukeria eukiko dogu. Halanda be, askorendako 'Escenas de matrimonio' Tele5-ko programarengaittik izango da ezaguna. Entrebistia egitteko momentuan be saiorako grabaziñuaren atsedendixan harrapau dogu.

“Jardunaldixetan Eibarren antzerkixaren inguruko jai giro edarra sortzen da”

- Antzerki Jardunaldixen Irekiera ekitaldixa egingo dozu bixar Colliseoan. Izenburua 'Voy a hablaros de un sueño' da. Zeln da amets hori?

Izenburua erreklamo modukua da. Berez gaur egungo intepretaziñua izango da hitzaldixaren ardatza, antzerkixaren gaiñian jardungo dot, oro har. Antzerkixaren dialektikan beti dagoz klabe batzuk eta nere kasuan, in-terpretatzeko orduan ametsa da horretara naraman klabe edo ardatza.

- Hitzaldixa emotiaz gain, 'Me llamo Juan Ramón Jiménez' antzezlanian biharrian ikusiko zaiztugu. Zer kontau zelnke lan horren gaiñian?

Lana antzezlanaren eta poesia-errezitalaren arteko zeozer da, bixen arteko erdibidian dago. Alfonso Zurroren testuan oiñarrituta dago eta Juan Ra-

món Jiménez zanari gerturatzeko bali-xo dau.

- Aurretik be ezagutzen ditzuzu Elbarko Antzerki Jardunaldixak, bestiak beste Dellbesen 'La guerra de nuestros antepasados' lanarekin hamen izan zifian-eta. Zelako oroitza-pena daukazu?

Oso oroitzapen ona daukat, antzerkixaren inguruko jai giro edarra sortzia lortzen dabe antolatzailliak. Gaiñera, 'La guerra de nuestros antepasados' testu zoragarrixa da, in-terpretatu ditudanen artian onenetakua eta oso pozik jardun neban.


- Antzerki munduko aktoria izanda, zelan allegau zara 'Escenas de matrimonio' salora?

Ba horrelakuak aillegatzen diran moduan, pentsau barik, proposamena egin zesten, onartu eta hortxe nago. Programak arrakasta haundixa izaten dihardu, hainbat egunetan audientzia haundixena lortu dogu eta horrek arduria be sortzen dau, erresponsabilida-de modukua sentitzen dozu, baiña poza be bai.

- Programak, zuk diñozun moduan, arrakasta haundixa dauka. Zuk 'Natallo' in-terpretatzen dozu, agintzia gustuko dakan andra batekin ezkon-duta dagan gizona. Audientziaren artian 'Natallo' asko daguala pentsatzen dozu?

Egixa esateko, arrakastarako arrazoi-etako bat audientzia eta personajien arteko identifikaziñua da, baiña baka-riik mailla bateraiñokua. Izan be, per-sonajien jokaeran errealdade puntu

“Espero barik aillegau jata telebisiñoko saio barrixa”



SOSLAIA

Manuel Galiana 1941eko martxuaren 9xan jaixo zan Madrillen. Antzerkixan, zinian eta telebisiñuan jardun dau biharrian, batez be antzerki munduko aktoria izanda be. Madrilgo Zinema Eskolan ikasi eban eta Interpretaziño Sari Berezixa lortu eban. Interpretaziño munduan San Isidro Institutuko antzerki gelan hasi zan, Antonio Ayora literatura irakasliarekin. Profesional gisa, barriz, Amelia de la Torre konpaiñiarekin emon zittuan lehelengo pausuak eta arrakasta haundixa lortu eban 'La casa de los siete balcones', 'A Electra le sienta bien el luto', 'Hay una luz sobre la cama' eta beste hainbatekin. Azken antzerki lanen artian aittatzekuak dira 'La guerra de nuestros antepasados' (2003), 'El adefesio' (2003-04), 'Conversación con Primo Levi' (2005-2006) y 'La comedia del bebé' (2006-2007). XXXI. Antzerki Jardunaldixetan Alfonso Zurroren testuarekin biharrian jardungo dau.

bat egon arren, tebeo edo marrazki bi-zidunetan moduan, gauzak asko exaje-ratzen dira. Bestela programaren for-matua ariña, azkarra eta dibertigarrixa da eta jendiak oso ondo hartu dau.

MANUEL GALIANA, AKTORIA



Liburutegi berritua zabaltzeko gertu

Apirila aldera Juan San Martin Liburutegia martxa betean egongo dela aurreikus-ten dute arduradunek, handitze-lanak amaitu eta gero. Portaleko lehenengo solairuan dagoen liburutegia zatika dihardute handitzen, erabiltzaileei ahalik eta enbarazu gutxien egiteko. Momentu honetan haurren liburutegia handitzen dihardute eta lan horiekin Aste Santu inguruan amaitzea espero dute. Lan guztiak amaituta, liburutegiak lehen baino 500 metro karratu gehiago izango ditu eta, apirila hasieran Nazioarteko Haurren Liburuaren Eguna gogoratuko denez, ordurako dena prest egotea nahi lukete, baina inauguraziorako data zehatzik ez dago oraindik.

Juan San Martin Liburutegiak 100 urte bete zituen iaz eta, zerbitzu hobea emateko asmoarekin, iazko uztailean instalazioak handitzeko lanak hasi ziren. Urria amaierara arte itxita egon zen liburutegia eta orain berriz itxeko asmoa zuten, lanen azken zatia egiteko, baina ikasleak azterketa sasoiari daudenez martxoan itxiko dute li-



EKKI BELAR

burutegia, 3 asterako. Hemendik gutxira Juan San Martin Liburutegiak zerbitzu osotuagoa eskaini ahal izango du, baina hori lortzeko lanek isladar izan dute 2007ko estatistika txostenean. Izan ere, iaz aurreko urtean baino 43.000 lagun gutxiago joan zen liburutegira. Hala ere, 2007an 159.152 lagunek erabili zuten liburutegia eta 32.000 mailegu egin zituzten (2006an baino 14.000 gutxiago). Behin obrak amaituta, aurreko urteotako kopuruetara bueltatzea espero dute liburutegiko arduradunek.


Ipurterre ipuin lehiaketa martxan

Abiatu da ...eta kitto! Euskara Elkarreak antolatzen duen XIV. Ipurterre Ipuin Lehiaketa. Eibarko ikastetxeren batean LH eta DBH ikasten dihardutenek har dezakete parte lehiaketan, beti ere euskeraz idatzitako lanekin. Ipuinak jatorrizkoak eta

inoiz argitaratugabeak izango dira eta ezizen eta telefono zenbakiz izenpetuko dituzte egileek. Lanak entregatzeko azken eguna martxoaren 12a izango da. Ikasleek euren ikastetxean bertan entregatu beharko dituzte lanak 09.00ak aurretik; dinamizatzaileek lan

guztiak jasoko dituzte eta epai-mahaiak apirilaren 30ean emango dute ezagutzera euren erabakia. Sari banaketa ekitaldia, berriz, maiatzaren 14an egingo da Hezkuntza Esparruan.

Atal bi bereiziko dira, B erdua eta D erdua eta horien arabera adinari begiratuta hainbat maila bereiztuko dira. Bakoitzean hainbat sari banatuko dira: erosketa-txartelak eta Ipurterre aldizkariko urtebeteko harpidetza, diploma eta sorpresa-lotearekin batera. Saritutako lanak Txikitto! hilabetez argitaratuko dituzte. Informazio gehiagorako ...eta kitto! Euskara Elkartera jo daiteke edo 943200918 telefono zenbakira deitu.



AMATA JAIO

Laburrak

KIROMASAJE IKASTAROA

Amandriak kiromasaje ikastaroa antolatu du. Otsaila eta apirila bitartean emango da ikastaroa Bittor Sarasqueta, Zan, zapatu batean bai eta bestean ez. Oinarrizko ikastaroa izango da, kiromasajearen inguruko ezagutza teoriko zein praktikoa hartzen joateko. Amaieran diplomak banatuko dituzte. Informazio gehiagorako deitu 699322320 telefono zenbakira.

MAKRO-LEHIAKETA

Errota gaztelekuak makro-lehiaketa antolatu du. Otsailaren 18an hasi eta martxoaren 2an amaituko da lehiaketa. Informazio gehiagorako Errota gaztelekuan bertan galdetu, Karmen kaleko 3an. Gogoan izan astelehenetik eguenera 17.00etatik 20.00etara zabaltzen dutela, zapatuetan 17.00etatik 21.30etara eta domeka eta jai-egunetan, berriz, 16.30etatik 20.30etara.

KZGUNEA

Hileroko moduan, Karmen kaleko Kzgunek ikastaroak eskainiko ditu otsailaren 14 eta 15ean emango dute, goizez 09.00etatik 11.00etara edo arratsaldean 18.00etatik 20.00etara. Sinadura elektronikokoaren inguruko otsailaren 14an eta 26an emango dute, egun bietan 16.00etatik 17.00etara. Posta elektronikokoaren inguruko otsailaren 27an egingo da eta baka elektronikokoaren gainekoa, berriz, hilaren 18an eta 19an.

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

MONDRAGON LINGUA
Begiraleak behar dira MONDRAGON LINGUAK Euskadiko zenbait tokitan **uztailean** antolatzen dituen ingeleseko udalekuetarako.
 Interesik baduzu, bidali curriculumak aetxenausia@mondragonlingua.com helbidera edo deitu **943.71.20.55** telefono zenbakira (Ainara Etxenausia), **otsailak 27a** baino lehen.



Eingo jonau?

Neuk be nahiko naju-ken hika egittia. Bai, horixe! Baiña ez don erreza ohitturia hartzia eta, gaiñera, neskok desbentajan gaonaz, gizonezko askok euren artian hika egin arren, neskori ez jeskune hika egitten eta. Hau don markia! Ur-tarrillaren 25eko *Goienkari-xan* barri pozgarrixa irakurri najonan: Bergarako *Jardun* elkartiak "Hika lagun" ekimena ipini jon martxan. Lehenengo, *Badiharduguko* kide dan Juan Martin Elexpuru bergararrak 16 orduko hikako ikastarua emongo jon motorrak berotzeko eta horren ostian, danok "ji tta jau" berbetar! *Jardun* Elkartian "Berriketari" edo *...eta kitto!* Elkartian "Berbetari" egitasmuetan moduan, taldia osatuko ditten hika jarduteko ohitturia daken herritarren eta ikastaruetan ibili diranen artian. Benetan txalotzeko ekimena begittantzen jatan! Lastimia... ni ezin non jua, baiña bajakana esperantzia halako aukera gehixago be etorriko jakuzela. Euskara elkartiak gero eta laguntza gitxiago (bai jente aldetik, bai erakundien aldetik) daken sasoi honetan, hango eta hemengo euskara elkartiak desagertzeko zorixan daren sasoi honetan, poza emoten jon indartsu datozen honek ekimenok ikustiak. Geuk be egingo jonau? Ikasteko *JARDUN* egin bihar don, eta *BADIHARDUGU*.

Aintzane Agirrebeña

Antzerki jardunaldietarako sarrerak

Gaur iluntzeko 20.00etan amaituko da XX-XI. Antzerki Jardunaldietarako aurrealmenta Coliseoan. Betiko moduan, martxoan joan da salmenta eta antzezlari birako sarrerak lehenengo egunetan amaitu ziren: 'Gorda' eta 'Salir del armario' antzezlarietarako hain zuzen. Hori ikusita, antolatzaileek 'Gorda' antzezlarietarako bigarren funtzio bat eskaintzea lortu dute, programatutakoaren egun berean (martxoaren 14an). Ondorioz, programazioan aldaketak gertatuko dira: 20.30etan eskaintzekoa zen funtzioa 19.00etara aurreratu dute eta bigarren emanaldia 22.00etan hasiko da. 20.30-



etarako sarrera erosita dute-nek txartelak 22.00etako emanaldirako aldatzeko aukera izango dute; hori bai, jarleku zenbakiak aldaketa egiteko orduan dauden aukeren arabera banatuko dituzte.

Gainontzeko antzezlarieta-

rako sarrerak egunean bertan, antzezlari hasi baino ordu-bete lehenago takillan eros-teko aukera egongo da eta antzezlari-egunetan, behin funtzioa amaituta, beste egunetarako sarrerak salgai egongo dira.

San Blas lehiaketa arrakastatsua

Bakillauaren Kofradixiak antolatutako I. San Blas lehiaketak oso harrera ona izan zuen domekan. 33 opil aurkeztu zituzten lehiaketara eta, antolatzaileek azaldutakoaren arabera, "denak oso kalitate onekoak, bai zaporean, bai erre-puntuan eta baita aurkezpenean ere. Horrek nahikoa lan eman zion epaimahaiari, irabazlea nor izango zen erabakitzeko". Hala ere, Roberto Prieto, Pepe Neila eta Angel Elizondok osatutako epaimahaiak Ma-



33 opil aurkeztu ziren Bakillauaren Kofradixiakoek antolatutako lehiaketara.

ria Luisa Garateren sanblasari eman zion lehenengo saria (garaikurra eta 100 euro). Bigarren saria Mari Carmen Iturriagarentzat izan zen (garaikurra eta 50 euro) eta hirugarrena, berriaz, Felisa Astarloarentzat (garaikurra eta 30 euro).


Bakillauaren Kofradixiak lehiaketan laguntzaile izan dituzten guztiei eskerrak azaldu nahi dizkie eta eibartar guztiak animatu nahi ditu datorren urtean egingo den lehiaketan parte hartzera.

Kaleetan kantuz ibiliko dira bihar

Debabarrenako Esperientzia Eskolatik sortutako Ikasten-en eskutik, Kaleetan Kantuz ekimenaren bigarren saioa egingo



da bihar arratsaldean, 19.00etatik aurrera. Antolatzaileen berbetan, "belaunaldien arteko ekitaldia izatea nahi dugu. 19.00etan Untzagako arkupeetan elkartuko gara eta ondo pasatzeko gogoia duen edozein ongietorria izango da. Musika Eskolakoei euren laguntza eskertu nahi diegu, musikarekin lagunduko digutelako kale-jiran". Ekimenaren helburua gure herrian abesteko egon den ohitura berreskuratu eta ohitura hori gazteei transmititzea dela gogoratu nahi dute. Zapatu honetarako prestatu duten programaren barruan oso abesti ezagunak sartu dituzte: 'Arragueta kalean', 'Maritxu nora zoaz', 'Cielito lindo', 'Hegoak ebaki banizkio', 'Eibar tiene su entrada' eta beste hainbat.



Egurrolaren margoak Topalekuan

Gaur arratsaldean inauguratuko du Alberto Egurrolak erakusketa Arrate Kultur Elkarteko Topalekuan. Otsailaren 17ra arte egongo dira ikusgai Eibarko artistaren lanak, ohiko ordutegian: zapatu eta domeketan, 12.00etatik 14.00etara eta astelehenetik barixakura, 19.00etatik 21.00etara.



Mermeladak egiteko tailerra

Euskal Herriko Nekazarien Elkartasunak, Ikasten-ek eta Sendabelarren Foroak ikastaroa antolatu du, kontserbak eta mermeladak artzau erara nola egiten diren irakasteko. Otsailaren 18an hasiko da eta 8 astelehenez jarraian emango dituzte klaseak, apirilaren 14ra arte, 16.00etatik 19.00etara Portalean. Izena emateko 946232730 (Unai, Bizkaiko EHNE) edo 667207684 (Rosa Mari) telefono zenbakietara deitu daiteke.

Flipin Folk barkamen eske

Aratoste Barixakuan Flipin Folk taldeak eman zuen kontzertua dela-eta, taldeko kideek barkamena eskatu nahi diote jendeari kontzertua aurreikusitakoa baino ordubete beranduago hasi zelako. Taldeak adierazi digunez, "kontzertua ikustera inguratu zen jendeari barkamena eskatu nahi diogu ordubete berandutu baitzen kontzertua, taldearekin zerikusirik ez zuten arazoengatik. Soinu-probetan argia birritan joan zen eta ia ordubete geldu egon ginen, probak egin barik, udaletxeok Untzagako erregistroa zabaltzeko zain. Eskerrik asko gelditu zen jendeari, izan zuten pazientziagatik!"



Gizartekintzak antolatuta gurasoendako hitzaldi zikloa jarri da martxan. Horren barruan, Garbiñe Arrizabalagak 'Zer da bullyinga? Nola identifikatu eta prebenitu tratu txarrak eta jazarpena' izenburuaren pean berba egingo du otsailaren 15ean 18.30etan Portalean.



GARBIÑE ARRIZABALAGA, PEDAGOGOA:

"Ematen duena baino bullying gutxiago dago"

- Zaila da bullying kasu bat identifikatzea?

Bullyinga zer den zehaztea zaila da. Hainbat egoera ezberdin eman behar dira gertatzen den kasu hori bullyinga den edo ez esateko. Eraso edo jazarpen hori jarraitua izan behar da, ez noizbehinkakoa; gainera, egoera jakin batzuk eman behar dira, osagai mehatxugarriak, irainak eta horrelakoak. Guzti horiek ematen badira, bullyinga zehazten duten egoerak ematen badira, bullying kasu baten aurrean gaudela esan daiteke.

- Nola prebenitu daiteke?

Familia, hezkuntza sistema eta gizartea dira, besteak beste, bullyinga prebenitzeko orduan parte hartu behar duten elementuak. Familia oso garrantzitsua da bereziki, beste garrantzia kendu gabe, elementu guztiak baitute zeresana eta zeregitea. Elementu guzti hauek, eta familiak bereziki, balio hezigarriak, mutilen eta nesken arteko empatia eta beste hainbat gauza bultzatu behar dituzte. Bestalde, hezitze estilo bat jarraitu behar da umeak txikiak direnetik. Horrela, konfidantza eman behar zaie, baita irakasle eta gurasoei harremanak izateko segurtasuna ere, biolentziaren aurkako balioak igorri behar zaizkie, eta abar. Pertsona autonomo eta arduradunak hezi behar dira nera-bezarora balioekin heltzeko.

- Zenbat ume jasaten dute bullyinga Gipuzkoan?

Ematen duenak baino gutxiagok; izan ere, hedabideetan agertzen denaren arabera asko dagoela dirudi. Umeen %0,5ak jasaten badu ere, garrantzitsua izango da zifra hori, helduek hezitzerako orduan izandako porrota izango litzatekeelako. Helduak izan behar dira haurrei erakutsi behar dietenak eta, horrela ez bada, porrota izango litzateke. Hala ere, erantzunkizun hori banatu egin behar da eskola eta gizartearekin.

- Zer da Cyber-Bullyinga?

Teknologia berriekin (mobilak, internet...) egiten den jazarpen era bat. Fenomeno hunkigarriagoa da, guraso askok ez dituztelako teknologia berriak ondo maneiatzen eta, horrela, zailagoa egiten zaie seme-alabek zer egiten duten kontrolatzea. Eraso modu horrek, gainera, anonimatoaren laguntza daukaj. Bullying tradizionalarekin zerikusia duen jazarpen era da, baina bullyingaren jarraipena ere izan daiteke. Cyber-Bullyingaren aurka egitea bullyingaren kontra egitea baino zailagoa da, jende askok teknologia berrietan duten ezjakintasunagatik. Horrela, uste dut 10 urteko ume batek ez lukeela mugikorrik eduki behar, webcam kontrolatuta egon beharko lukete eta ordenagailuak etxeko leku komun batean egon beharko lukete.

telefono jakingarriak

SOS deiak..... 112
 Pegora010
 Udaletxea943 70 84 00
 Portalea943 70 84 39
 Udaltzaingoa.....943 20 15 25
 Mankomunitatea....943 70 07 99
 Debegesa943 82 01 10
 KIUB943 20 38 43
 Epaitegia943 03 34 00
 Iberdrola.....901 20 20 20
 Naturgas.....902 12 34 56
 DYA Larrialdiak...943 46 46 22
 Gurutze Gorria....943 22 22 22
 Mendaro osp.....943 03 28 00
 Anbulategia.....943 03 25 00
 Torrekua943 03 26 50
 Errepideak.....902 11 20 88
 Ertzaintza943 53 17 00
 Eusko Tren.....902 54 32 10
 Pesa.....902 10 12 10
 Taxiak943 20 30 71
943 20 13 25
 Alkoholiko Anonimoak 629 14 18 74

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutegia: 07.00, 08.50, 10.30, 13.30 eta 18.30. Laneguna: 08.00, 15.30, eta 20.30. Jaieguna: 09.30 eta 20.30. DONOSTIA-EIBAR. Egutegia: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30 eta 13.30. EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.40etatik 20.40etara ordu. Zapata eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. BILBO-EIBAR. Laneguna: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapata eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. EIBAR-GASTEIZ. Egutegia: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapata: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. GASTEIZ-EIBAR. Egutegia: 08.30, 12.30, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.30 eta 20.30. EIBAR-IRUÑA. Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.30 eta 18.00. IRUÑA-EIBAR. Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. EIBAR-ARRATE. Zapata: 14.15. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. ARRATE-EIBAR. Zapata: 14.45. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. EIBAR-ELGETA. Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. ELGETA-EIBAR. Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.30 eta 19.30. ERMUA-MENDARO. Asteleheneretik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdiko). Zapata-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era ordu. MENDARO-ERMUA. Laneguna: 06.55etatik 21.55etara orduerdiko. Zapata-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era ordu.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.13etatik 21.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. BILBO-EIBAR. Laneguna: 05.57etatik 20.57etara ordu. + 09.34 eta 20.18. EIBAR-DURANGO. Egutegia: + 22.18. EIBAR-DONOSTIA. Laneguna: 06.13etatik 20.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. DONOSTIA-EIBAR-ERMUA. Laneguna: 05.47etatik 20.47etara ordu.

eguraldia

Euskal Meteorologia Agentziatik

ASTEBURU EGUZKITSUA

ZAPATU goizean behe-lainoa agertuko da eta giro freskoa izango dugu. Izotza ere botako du. Hego ukituko haizeari esker, termometroa 14-17 °C-ren bueltan ibiliko da egunak aurrera egin ahala. **DOMEKAN berdin** jarraituko du.

9
zapateria

KALEETAN KANTUZ

19.00.- Kaleetan Kantuz taldearen irteera. Untzagan.

ANTZERKI
JARDUNALDIK

19.30.- Irekiera ekitaldia. Manuel Galianaren hitzaldia eta Narruzko Zezen lehiaketako sari-banaketak. Coliseo antzokian.

10
domeka

SANTA AGEDA

11.00.- Santa Ageda erromeria. Meza San Roman eta Santa Agedaren ermitan. Ondoren, musika eta pintxoak. Aginaga auzoan.

UMEENDAKO ZINEA

17.00.- 'La búsqueda 2: El diario secreto'. Sarrera: 2'80 euro. Amaña Kultur Aretoan.



11
astelehena

ANTZERKI

JARDUNALDIK

20.30.- 'Espía a una mujer que se mata' (Daniel Veronese, Argentina). Coliseo antzokian.

12
martitzena

IKASTEN

16.00.- Ikasten taldekoen bisita Elgoibarko Maki-na Erreminta Institutura.

GURASOAK MARTXAN

18.30.- 'Gaur egungo nerabeak', gurasoentzat hitzaldia. Ignazio Zuloaga institutuan.

EIBAR ZINE-KLUBA

21.30.- 'Scoop' (Woody Allen). Sarrera: 3'50 euro. Coliseo antzokian.

lehiaketak

ProiektEIBAR Proiektu Teknologikoen Lehiaketa Epea: **Martxoaren 1era arte**. Informazioa: www.euiti.eibar.ehu.es

XI. Eguen Zuri Argazki Lehiaketa Gaia: Aratosteak. Epea: **Martxoaren 4ra arte**. Informazioa: Arrate Kultur Elkarte. www.eibar.org/blogak/kultu

XIV. Ipurterre Ipuin Lehiaketa Epea: **Martxoaren 12ra arte**. Informazioa: ...eta kitto! Euskara Elkarte. 943-200918 telefonoa

II. Industriagintzari buruzko argazki lehiaketa Gaia: Industriagintza. Modalitatea: Euskarri digitaletan. Epea: **Martxoaren 14ra arte**. Informazioa: Armeriako Ikasle Ohien Elkarte. 943-203146 telefonoa. aaa@armeriaeskola.com

14
egutegia

IKASTEN

11.30.- "Zer da Osasun Mentala?" bideokonferentzia. Hizlaria: Enrique Etxeburua, EHUKo irakaslea.

NAGUSIENTZAT
DANTZALDIA

18.00etatik 20.30etara.- Pertsona nagusientzako dantzaldi bikaina, Rhusell orkestrarekin. Sarrera eta edari bat doan. Antolatzailerak: Udala, Biztu koordinakundearen laguntzarekin. Astelena frontoian.



erakusketak

Otsailaren 17ra arte

Alberto Egurrolaren margo erakusketa. **Topalekuan.**

Otsailaren 28ra arte

Mateo Guillabert-en argazki erakusketa. **El Ambigú kafetegian.**


Alberto Lukeren argazki erakusketa. **Deporreko tabernan.**

Alejandro Bergararen argazki erakusketa. **Portalea tabernan.**


Martxoaren 2ra arte

Jesika Martínez-Alcocer-en 'Interbentzioa aretoan' erakusketa (marrazkiak, akrilikak, eskulturak). **Portalean.**

denborapasak



Aurkitu hemen Debarreneko zortzi herrien izenak.



Aurrekoaren SOLUZIOA


farmaziak

- 8. barixakua**
GOIZEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 9. zapatua**
GOIZEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 10. domeka**
GOIZEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 11. astelehena**
GOIZEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 12. martitzena**
GOIZEZ **Las Heras** (Sostoaarren, 20)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 13. eguaztena**
GOIZEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- 14. eguena**
GOIZEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 15. barixakua**
GOIZEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

hildakoak

- Cecilia Berasaluze Askasibar. 87 urte. 2008-I-31.
- Asier Urzelai Gisasola. 31 urte. 2008-II-1.
- Rosa García Rodrigo. 75 urte. 2008-II-3.
- Hortensia Ruiz Pérez. 82 urte. 2008-II-3.
- Paulino Gavilán Hernández. 75 urte. 2008-II-3.
- Manuel Iriondo Txurruka. 88 urte. 2008-II-5.

zinemazinemazinemazinema



untzaga
"Ahora o nunca"

ZUZENDARIA:
Rob Reiner
AKTOREAK:
Jack Nicholson, Sean Hayes, Morgan Freeman, Rob Morrow...

Carter Cahmbers-ek eta Edward Cole-k bizitza oso desberdinak bici izan dituzte, baina gauza bat dute amakomunean: ez dituzte euren ametsak bete. Erietxean elkartzen direnean, alta hartu eta ametsen bila hasiko dira bidaiatzen...



coliseo
"Scoop"

ZUZENDARIA:
Woody Allen
AKTOREAK:
Woody Allen, Scarlett Johansson, Hugh Jackman, Ian McShane...

Sondra Pransky kazetaria Londresen dago, oporretan. Azti baten ikuskizunean parte hartzen dagoenean, Londreseko gizon garrantzitsuenetako batek pertsonak hiltzen dituela jakingo du eta, aztiarekin elkarlanean, froga bila hasiko da...



amaña
"La búsqueda 2"

ZUZENDARIA:
Jon Turteltaub
AKTOREAK:
Nicolas Cage, Jon Voight, Harvey Keitel, Ed Harris...

Ben Gates-ek altxor berria aurkitu behar du, baina oraingoan gainera, bere birraitona zenaren izen ona zaindu behar du, Lincoln-en heriotzarekin lotu baitute. Munduan dagoen altxor handienetakoak du guztiaren erantzuna...

ETXEBIZITZAK

- Soraluzeko Rabal kalean pisua salgai. 64 m². Logela bi, egongela, sukaldea eta komuna. Tel. 658-339709.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 649-199638.
- Pisua salgai Egigurentarrenean. Logela bi, sukalde-jangela-egongela eta komuna. Trasteroa etxe barruan eta beste bat kanpoan. Jantzita. Egoera onean. Tel. 635-752986.
- Logela edo pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 679-568370.
- Logela alokagai. Tel. 686-286110.
- Pertsona behar da etxea konpartitzeko. Oso prezio onean geratzen da alokairua. Tel. 637-528992.
- Neska eskaintzen da etxea alokairuan konpartitzeko. Deitu arratsaldean. Tel. 652-716135.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 628-789789 edo 650-344915.
- Amañan pisua salgai. Logela bi, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoi handi bi. Gasa eta igogailua. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio interesgarria. Tel. 618-135429.

LOKALAK

- Lokal komertziala salgai Urkizuko dorreetan. 50 m². Pasabidearekin. Tel. 656-705279 edo 943-742930.

Iragarkiak ipintzeko: 943-200918 (Marisol).

*Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako **PREZIOAK** honakoak dira: **Etxeak, lokalak, garajeak:** alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. **Autoak:** 10 euro. **Doaneko iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.***

SALEROSKETAK


- Errepideko bizikleta salgai. Vitus Futural koadroa, 56 tailakoa, kanbioak manillarrean. 175 euro. Tel. 943-530880 edo 688-609610.
- Ejekutiboarentzako narruzko maletina salgai. Erabili gabe. Tel. 676-116300.
- Jantokiko mahaia eta aukiak salgai. Berriak. Tel. 943-702589 edo 686-031181. Teresa.
- 'Las aventuras de Tintin' en 14 bideo salgai. Fundarekin. Berriak. 7 euro. Tel. 943-120030.
- Ohe-nidoa, eskritorioa, apala, sinfonierria eta almohada-kutxa salgai. Merke eta berria. Tel. 943-701183.
- Kotxe-kapota, silla txikia eta kapazoa salgai. Bebe-car markakoa. Tel. 943-200739 edo 605-774767.
- Korrika egiteko zinta salgai. Tel. 656-789221.
- Telebistarako kristalezko altzarria salgai. 3 apal eta moduloa. Berri-berria. Prezio onean. Tel. 665-701663.

LANA

- Ingeleseko klaseak ematen dira etxe-etxe. Tel. 647-232536. Jaione.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 659-627356.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 658-400556.
- Lizentziatuak klase partikularrak ematen ditu maila guztietan. Talde txikiak eta prezio onean. Tel. 943-121898.
- Sukaldaria behar da. Esperientziarekin. Tel. 610-619421. Rakel.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 639-240038.
- Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 679-568370.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 636-172765.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 690-134485.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 686-127137.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 697-869958.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 697-431326.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 667-908749.
- Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 605-772606.
- Gizona eskaintzen da pegorak, lantegiak eta obra amaierako garbiketarako. Tel. 622-625812.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 616-230814.
- Neska eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 618-156794.
- Administraria eskaintzen da arratsaldez orduka lan egiteko. Esperientzia. Tel. 699-069080.
- Neska arduratsua eskaintzen da orduka umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 679-095634.
- Neska eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 620-336722 edo 943-120058. Yaneth.
- Tarota irakurtzen da. Tel. 608-005812.
- Neska euskalduna behar da arratsaldez umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Deitu 21.00etatik aurrera. Tel. 696-179224.
- Sukalde laguntzailea behar da. Tel. 943-121262.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Tel. 663-569263.
- Neska eskaintzen da orduka edozein lanerako. Tel. 686-127137.
- Andra eskaintzea da goizez edo orduka umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 688-618959.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan lan egiteko. Tel. 648-077830.
- Liburu-azoketan herriz-herriz ibiltzeko langilea behar da. Ezinbestekoa euskalduna izatea eta gida-baimena eta autoa edukitzea. Tel. 943-590212.
- Mutila eskaintzen da gauaz nagusiak zaintzeko. Tel. 648-143804.
- DBHko neska bati klaseak emateko neska behar da. Euskeraz ondo jakitea ezinbestekoa. Tel. 943-700705.
- Mutila eskaintzen da lantegirako, arozgintzan lan egiteko, igeltsero-laguntzaile moduan... Tel. 656-781743. Gary.
- Urki inguruko emakumea behar da umea zaintzeko. Deitu 19.00etatik aurrera. Tel. 943-700400.
- 19 urteko ikaslea eskaintzen da umei etxeko-lanak egiten laguntzeko. Tel. 645-704709.
- Neska eskaintzen da ileapaintzaile-laguntzaile moduan edo nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 669-064252.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Tel. 652-715908 edo 943-742201.
- Neska eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. Tel. 659-222426. Janire.
- Mutila eskaintzen da tabernan lan egiteko: sukaldaria moduan, barran... Tel. 666-054698.
- Neska eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. Tel. 628-789789.
- Neska eskaintzen da arratsaldez umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 690-791689.

...eta musu bat zuretako

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 3 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 6 euro. Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Oe, oe, oe!! IBON, bixar 32 urte bete bihar dittuzula-eta, zorionak eta muxuak danon partez.



Zorionak, LEIRE, datorren eguaztenian 10 urte egiten dozuzelako. Famelixaren partez.



Zorionak LARRAITZi, gure sorgintxuari!, eguaztenian urte bi bete zenittuan-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, IÑAKI, gaur urtiak betetzen dittuzu-eta. Ondo ospatu. Muxu bat eta besarkadia lagunon partez.



**SUKALDE BEREZIAK
PREZIO IKUSGARRIAN
FINANTZIAZIOA**

disede ernestomeda sukaldeak

disede estudioa. Jardinetza 14, behea. Tfnoa. 943 20 05 65. Faxa. 943 25 49 06. disede@disede.com

CENTRO MEDICO EIBAR

INKORPORAZIO BERRIAK:

- FOTODEPILAZIO UNITATEA, IPL LASERRAREKIN
- FOTOGAZTETZEA
- DOANEKO DIAGNOSTIKOA
ETA NEURRIKO FINANTZIAZIOA

Unitate berri hau martxan ipini dugula-eta,
Eibar Osasundegian %10eko deskontua
eskaintzen dizuegu otsailaren amaierara arte.

Urkizu Pasealekua, 13
Tfno. 943.120.200

Klase teoriko
zein praktikoak
norberak nahi
dituenean

Klase teorikoak
ikusentzunezkoen
abantailak
erabilita

Merkantziak
eta bidaiariak
garraiatzeko
nazioarteko
agentzia ziuertagiriak
lortzeko ikastaroak

GIDATZEKO
KARNET
GUZTIAK

SOLOZABAL
autoeskolak

HELBIDE BERRIA
Estaziño kalea, 8

Tel. 943 70 23 84

ETESA

Tfnoa. 943 12 19 73 - Faxa. 943 12 70 68
Bidebarrieta, 66 - 428 Postakutxa - 20600 EIBAR
e-mail: etesa@euskalnet.net



ALTZARIAK-AULKIAK



BULEGOAK BANATZEKO MAMPARAK



BULEGOETAKO INSTALAZIO OSOA